

**Irañetako Udala
udaletxea
konpontzeko
dirulaguntzaren
zain dago** / 9

**Sexu heziketa landu
dute hiru
ikastetxeetan, baita
erakusketa ibiltaria
ondu ere** / 8

**Hondakin Zerbitzuak
estreinakoz
hezkuntza programa
garatu du ikasturte
honetan** / 6

**Dani Saldise
irurtzundarra
Europako txapelduna
da Palma Futsal
taldearekin** / 17

**La Peluso, Hiru Mendi
Zerrak, Josefina
Arregiren aldeko kirol
ekimenak... asteburu
betea Sakanan** / 18-19

**Euskara zerbitzuak
eta Biak Bat
elkartek Irakurkide
tailerrak martxan
jarri dituzte** / 22

**Igone Augusto
dantzari altsasuarrak
Kataluniako
Txapelketan parte
hartuko du** / 23



**"Zegama-Aizkorrin
jende artean pasatzen
naizenean malkoak
erortzen zaizkit"**

Jose Antonio Salgado, mendi korrikalaria / 2-4



Jose Antonio Salgadok 63 urte ditu. 41 urteko ibilbidean, astebururo parte hartzen du lasterketaren batean. Espainiako Mendi Kopa eta txapelketak dira bere helburuak. UTZITAKOAK

"Zegama-Aizkorri hogeigarrenez egiten badut, hunkituko naiz"

JOSE ANTONIO SALGADO MANGAS MENDI KORRIKALARIA

MENDI LASTERKETAK Mendi korrikalari altsasuarrak Zegama Aizkorri mendi maratoiko edizio guztiak igo ditu, hemeretzi. Igandean hogeigarren aldiz parte hartuko du

Maidar Betelu Ganboa ALTSASU

Ogibidez La Burundako zurgina da Jose Antonio Salgado altsasuarrak, baina askoz ere ezagunagoa da bere zaletasunagatik lanbideagatik baino. Korrikalaria da, eta apartekoa, gainera. 63 urte ditu, irailean 64 beteko ditu eta ia astebururo parte hartzen du mendi lasterketaren batean. Hala jarraitzeko asmoa du, ongi sentitzen delako. 41 urtetan 1.131 lasterketetan parte hartu du, horietatik 400 inguru asfaltokoak eta gainontzekoak mendikoak. Zegama-Aizkorri mendi maratoiko proba guztiak bukatu ditu, hemeretzi, eta igandean hogeigarrenari ekingo dio. Eta segi aurrera.

Korrikan hasi zen mendizalea al zara, ala mendiko lasterketetan hasi zen korrikalaria?

Korrikalaria, atletismoan hasi nintzen. Lankide bat soldaduskatik bueltatzerakoan atletismoan

hasi zen. Eta urte bat geroago, nik berdina egin nuen. 1982 urtean hasi nintzen inguruko lasterketetan parte hartzen, asfaltoan. Hasieran Sociedad Deportiva Alsasua taldean geunden, gero Dantzalekun, eta gero Dantzaleku Sakanan. Maratoi erdietan hasi nintzen, eta baita maratoietan ere. Asko egin nituen. 1989koa da nire maratoi marka onena, Donostiako maratoikoa: 2:32:13. Sakanako marka onena izan zen, 2020ko Sevillako maratoian Beñat Katarainek gainditu arte (2:28:02). **Noiz hasi zinen mendiko lasterketetan?**

Etxarri Aranazko mendira joan etorria izan zen lehena, 1982 urtean. 10 kilometroko proba da, antzinako apustueta oinarritutakoa. 26-27 aldiz osatu dut. Garai haietan ez zeuden egun ezagutzen ditugun mendi lasterketak. Etxarrikoa eta Lakuntzako Guardetxe Igoera ziren inguruan egiten zirenak, baina distantzia motzekoak ziren, herrietako apustuak. Beroarekin erosoago ibiltzen naiz hotzean baino, eta udako lasterketak bilatzen nabilela Pirinioetan eta Alpeetan mendi lasterketa ugari antolatzen zirela jakin nuen. 1986an Suitzara joan ginen oporretan, eta 13. Course Sierre-Zinal egin nuen, mendi lasterketa. Urte haietan txirindularitzan Pedro Delgado nabarmentzen hasi zen, eta Tourrean egiten zituzten etapak nik korrika egitea bururatu zitzaidan. Eta konturatu nintzen Pirinioetako ia mendikate guztietan las-

"1982 URTEAN HASI NINTZEN. 41 URTEKO IBILBIDEAN GUZTIRA 1.131 LASTERKETA EGIN DITU"

"ORDUAN HEMEN EZ ZEGOEN APENAS MENDI PROBARIK. PIRINIOETAN ARITZEN NINTZEN, ALPEETAN"



EGOKI
Ventanas PVC Leihoak

www.ventanasegoki.com

948 563 253 Arkinoturri Industrialdea • Olazti

**EROSOTASUNERAKO
PENTSATUAK**

Diseinu soileko lehiu berriak

Erakusketa: Olite kalea 16 • Iruñea



terketak egiten zirela. Horrela hasi nintzen mendi lasterketetan, bereziki Frantziako estatuko probetan: Luz Ardiden, Cauterets, Vignemale... Asfaltoko denboraldia, hau da, maratoiak eta maratoi erdiak, eta krosa udako mendi lasterketekin uztartzen nituen. Pista soilik urte pare batez egin nuen.

Aspalditik mendi lasterketetan aritzen zara bakarrik, San Silvestre edo halakoren bat izan ezik.

90. hamarkadan hemen ez zegoen apenas mendi lasterketarik, baina gutxika antolatzen hasi ziren eta geroz eta gehiago sartu nintzen mendiko lasterketen munduan. 2000-2001 urte ingurutik aurrera mendi lasterketetan zentratu nintzen. Lakuntzako Guardetxe Igoerako lehen edizioa irabazi nuen, eta hirugarren edizioan Galarragak errekorra gainditu zuen. Hasierako lasterketa haietan gehienez 20 korrikalarik parte hartzen genuen lasterketetan, eta guztiek ezagutzen genuen elkar: Garin, Galarraga, ni neroni... 17-18 urtez jarraian parte hartu nuen Guardetxe Igoeran. Gero proba luzatu zuten eta Lakuntza-Aralar mendi lasterketa antolatu zuten, egungoa, proba polita. Etxarri Aranazko Mendira Joan Etorriko ibilbidea hasierako berbera da. 27-28 aldiz egin izan dut, ahal badut beti joaten saiatzen naiz. Gaur egun lasterketa asko eta mendi korrikalari asko daude. **Zergatik sortu zen mendi lasterketen boom hori?**

Nik uste errazagoa dela mendian korrika egitea asfaltoan egitea baino. Mendian ez zaude uneoro topera korrika, asfaltoan bezala. Tarteka oinez zoaz, erlaxatzen zara... Asfaltoan ez. Asfaltoan ere lesio gehiago sortzen direla koan nago. Belaunek gutxiago sufritzen dute mendian, lurra ez baita asfalto bezain gogorra. Asfaltoko maratoi bat egiterakoan, edo Behobia bera, ostegunera arte ia ez nintzen erreku-peratzen, sekulako agujetak izaten nituen. Eta mendi lasterketekin, aldiz, ezer gutxi. Mendizkoetan ordu gehiago dira, distantzia handiagoa, baina erritmoa eramangarriagoa da. **Zure ibilbidean zenbat lasterketa egin ote dituzu?**

Aurrekoan zenbatu nituen. 41 urteko ibilbidean guztira 1.131 lasterketa egin ditut, asfaltokoak eta mendi lasterketak zenbatuta, eta baita eski duatloiak ere. Eskia

ere oso gustuko dut, sasoi betean jartzen zaitu. Lasterketa horietatik erdia baino gutxiago, 400 inguru, izango dira asfaltokoak. Gainontzekoak mendi lasterketak. **Astebururo parte hartzen duzu lasterketaren batean. Erritmo horri nola eusten diozu?**

Une bat iristen da zeinean astean zehar oso gutxi entrenatzen duzun. Hau da, asteburuko lasterketekin nahikoa dela. Lasterketa batzuk lehia dira niretako, eta beste batzuk entrenamendua.

Munduko lasterketa gogor eta ezagunenetan lehiatu izan zara. Aipa itzazu batzuk.

Alpeetan Sierre-Zinal egin dut eta hirutan osatu dut Montblanc-eko Ultra Traila. Famatua da, oso ongi saltzen dute, baina niri ez zait horren gogorra iruditzen. 3K Red Bull, 3 km bertikal jarraian biltzen duen proba ere hirutan egin dut. Reunion Irlako Gran Raida lautan osatu dut, Madeirako Irlako Ultra Traila, Pirinioetan Ultra Tour Du Vignemale, Aneto Xtreme... Etxean Zegama-Aizkorriko maratoia eta beste hamaika.

Eta zein da gogorrena?

Hori zaila da esaten, oso gogorrak diren lasterketa asko baitaude. Esaterako, apirilaren 29an Paulsen (Tarragona) jokatuako Trencacims Ultra (75 km) oso gogorra iruditu zitzaidan. 97 korrikalarik utzi behar izan zuten proba. Espainiako Ultra Txapelketa zen. Hasieran ongi ibili nintzen, baina gero erori nintzen, kolpea hartu eta ahal nuen moduan bukatu egin behar izan nuen. Beteranoen C mailakoa naiz, 60 urtetik gorakoa, eta podiuma egitea espero nuen, baina erorketarik kanpo geratu nintzen. Hurrengo egunean, apirilaren 30ean Mirador de las Bardenas 20 kilometroko traila egin nuen, eta maiatzaren 1ean Ribaforadako ermiten lasterketa, 5 kilometrokoa. Asteburu borobila izan zen.

Zeintzuk dira aurtengo zure helburu nagusiak?

Beteranoen C mailan ongi ibiltzea. Maila horretan egindako lana baloratzen dut, hau da, ez diot sailkapen absolutuari begiratzen. Ez naiz 20-30 urteko gazte batekin lehiatuko. Espainiako Kopako lasterketetan eta Espainiako Txapelketa guztietan, hau da, Banakakoa, Ultra eta Bertikalak, parte hartzen dut. Hori da neure helburu nagusia. Gero, urtero lasterketa berri



Jose Antonio Salgado, beteranoen 60 urtetik gorako podiumaren gorenean. UTZITAKOIA

batean aritzea gustuko dut, eta berria bada, lehen edizioa, Bardeetakoa bezala, hobe. Aurten ere Pirinioetako lasterketaren bat egin nahi nuke, Huesca aldean. Lehen asko joaten nintzen, baina orain ez hainbeste. Eta Picos de Urbionen egingo den lasterketa berri bat ere egin nahiko nuke.

Espainiako Mendi Lasterketen Kopan eta Txapelketetan makina bat podium eta domina izango dituzu. Beteranoen mailan bereziki. Joan zen urtean, 2022an, 22 aldiz igo nintzen podiumera estatu

"ERRAZAGOA DA MENDIAN KORRIKA EGITEA ASFALTOAN BAINO. ASFALTOAN LESIO GEHIAGO DAUDE"

"REUNION IRLAKO GRAND RAIDA EGIN DUDAN PROBARIK BEREZIENA DA. IKUSGARRIA DA"

mailan, beteranoen C mailan. 50 urteko beteranoen mailan ere, hiru podium egin nituen. Eta horrek izugarri pozten zaitu. Orain arte Espainiako 22 edo 23 Mendi Lasterketa Txapelketa jokatu dira, eta nik ia guztietan parte hartu dut. Beteranoetan Espainiako txapelketa lauzpabost aldiz izan naiz, 45 urte nituela lehen aldiz. Eta maila absolutuan ere hirugarren sailkatu izan naiz zenbait lasterketetan.

Zure kategorian ez zarete korrikalari asko egongo.

Zortzi-bederatzi egongo gara. Eta emakumezkoak, gutxiago. Antzeko maila dugu, eta gustura. **Distantzia guztietan parte hartzen duzu. Zein duzu nahiago?**

Maratoi erdiko distantzietan aritzen naiz hobeki, 3 orduz azpikoetan. Km bertikaletan moldatzen naiz, eta nahiz eta jende askok ultra lasterketengatik ezagutu, nik ez dakit ultretan ongi korrika egiten. Ultretako korrikalariak erritmo berezia izaten dute, ez dute apenas energiarik gastatzen eta gutxinaka doaz. Nik tarteka korrika asko egiten dut, edo oso mantso noa... ez naiz oso ona distantzia luze hauetan.

Horrenbeste urtetan hamaika lasterketa. Oso ezaguna izango zara.

Bai, azkenean jendeak ezagutzen zaitu. Joan zen urtean lehenengoz gonbidatu ninduten lasterketa batera, Castellonen.

Sakanako proben artean, zein duzu kuttunena?

Arbizuko Tritoiena. Oso gustuko dut Beriango buelta hori. Lehendabiziko edizioan sailkapen absolutuan bigarren izan nintzen 56 urterekin. Ezin nuen sinetsi. Ibilbide oso polita du. Lakuntza-Aralar ere polita da, Hirumugarrietako zati hori, esaterako. Urte luzez aritu izan naiz. Baita Olatzagutia-Urbaşa ere. Uhartea Arakilgo Km Bertikalean ere aritu naiz. Beriainek erakartzen du, eta jendeak malda horietan nola sufritzen duen ikusteak, ere. Trikutraila behin egin nuen, baina ni mendi altuetan hobeki moldatzen naiz. Joan zen urtean ixte lanetan aritu nintzen. Etxarri Aranazko Mendira Joan Etorrira joaten naiz, ahal badut. Etxekoetan parte hartzen saiatzen naiz, baina batzuetan Espainiako Kopakoekin batera izaten dira eta ezinezkoa zait.

hurrengo orrian jarraitzen du »

Lesio larririk izan al duzu?

Korrika ez. Eskiatzen belauna bihurritu nuen, baina osatu nintzen. Atletismoan belaunek sufritzen dute, baina nahiko ongi nago. Makilak erabiltzen ditut, eta bastoiek belaunak asko babesten dituzte. Jaisten zaudela eroriko asko ekiditen dituzte.

Sasoi ez nola sentitzen zara?

55 urtetik aurrera hasi nintzen behaldia sumatzen. Bereziki erreflexuetan nabaritzen dut, gehiago begiratu behar duzu, baldarrago zabilzalako. Ikusmenak ere eragin handia du. Baina ongi sentitzen naiz. Ez naiz lehen-go, baina ahal dudana egiten dut. Defendatzen naiz.

Mendi lasterketak uztea gertu ikusten duzu?

Momentuz ez, ez badut lesioren bat, ez. Baina pentsatzen dut denborarekin beste batzuei gertatu zaiena gertatuko zaidala. Lasterketak utzi eta mendira oinez joango naizela, paseatzera, edo lasterketak ikustera.

Zer ematen dizu mendi lasterketak?

Nire zaletasuna da, oso gustura egiten dudana zerbait. Bizitzeko modu bat ere bada, behin hasita, guztiz harrapatzen zaituelako.

Inoiz egin nahi zenukeen lasterketa hori...

New Yorkeko maratonia, esaterako. Nork daki? Agian hurrengo urtean animatzen gara (kar, kar). Mendian lasterketetan badaukat arantza bat, Camerungo lasterketa bat. Baina tren hori pasatu zen.

Egin duzun lasterketarik bereziena?

Reunion Irlako Grand Raida, Ozeano Indikoan, hemendik oso urruti. Kolonia frantsesa zen. Lasterketa horrek irla guztia zeharkatzen zuen, diagonalean. 125 kilometroko proba zen, eta denetatik zuen: belardiak, basamortua, mendia, tartean 3.000 metroko bat... hirutan egin nuen Grand Raida, 1999an, 2001ean eta 2002an, lehendabiziko edizioetan. Pirinioetako ezagun batzuek antolatu zuten, eta Tuterako batekin biak animatu ginen. Reunion Irla lehenengoz eta azkarren gurutzatu duen estatuko lehen gizona naiz. Lasterketa hori egiteak sekulako satisfazioa sortu zidan. Ikusgarria da, irla osoa lasterketan iraulia, etengabe animatzen... Oso ederra. Gero ibilbidea aldatu zuten. Lasterketa horrek guztiz markatu ninduen. Ezkonbidaia bertara egin nuen, pentsa!



"Ez dakit Zegama-Aizkorriko giroa inon ikusi ote dudan"

JOSE ANTONIO SALGADO MANGAS MENDI KORRIKALARIA

Zegama-Aizkorri maratoiko (42 km) lasterketa guztiak, hau da, orain arte jokaturako hemeretziak egin eta bukatu dituzu. Igandean 20. edizioa egiteko prest zaude.

Sei korrikalari gaude Zegama-Aizkorri proba guztiak osatu ditugunak. Horregatik, izena ematerakoan zuzenean onartzen gaituzte, ez gara zozketan sartzen. Aurten ere aritzekoak gara. Harreman ona dugu, urrian elkartu ginen eta Brinkola aldean ibili ginen Gorka Gavira eta Ricardo Ruiz gasteiztarrak, Koldo Urrestarazu eta Mikel Legarreta ataundarrak, Jon Zubillaga berastegierra eta seiak. Duela 10 urte omenaldia egin ziguten, eta aurten ez dakit aitortzaren bat jasoko ote dugun.

Zerk egiten du berezi Zegama-Aizkorri maratoia?

Dagoen giroak. Gipuzkoako publikoa ezberdina da, eta ez bakarrik mendi lasterketakoak. Txirrindularitzan, estropadetan, zaldi lasterketetan... proba guztiak zalez betetzen dira eta zaleek dena ematen dute. Sekulako giroa egoten da. Nik ez dakit Zegama-Aizkorriko giroa inon ikusi ote dudana. Esaten dute Italiako mendi lasterketa batzuetan ere giro ederra egoten dela, eta nonbait Zegama-Aizkorriko antolatzaileek

hartu-eman handia dute italiarrek.

Beraz, ibilbideak baino, giroak egiten du berezi.

Zalantzarik gabe. Ibilbidea polita da, baditu tarte oso teknikoak, tarte azkarrak, korrika asko egitekoak... paisaia ere ederra da, baina Pirinioetan ikusi izan ditut ikusgarriagoak diren tokiak. Dagoen giroak egiten du ezberdin.

Igandean Zegama-Aizkorri maratoia 9:00etan abiatuko da. Ikustera hurbilduko bazina, non jarriko zinazte?

Jende gehiena Sancti Spiritun eta Aizkorri jartzen da, baina ni txoko ezkutuago batean jarriko nintzateke, mendian, urrutitik korrikalariak nola etortzen diren ikusteko.

Korrikalari gisa, horrenbeste jende horren gertu animatzen egoteak animatzen du edo urduritzen du?

Niri hunkitu egiten nau. Bertatik pasatzen naizenean malkoak erortzen zaizkit. Horrenbeste urteren ondoren, oraindik ere. Herriko jende asko igotzen da, animatzen zaituzte... oso polita da. Zegama oso hunkigarria da, txundituta geratzen zara.

Kilian Jornet da Zegama-Aizkorriko izarra. Hamaika aldiz parte hartu izan du, eta hamarretan irabazi. Joan zen

urtean 9 minututan hobetu zuen errekorra (3:36:40). Munduko mendi korrikalari onena da?

Zalantzarik gabe. Kilian mendian jaio da eta menditik edan du jaio zenetik. Espainiako Kopan parte hartzen hasi zenean ez dakit oraindik 16 urteak beteta ote zeuzkan. Eta nola egiten zuen korrika, ikusgarri. Bigarren sailkatzen zen, baina ez zuen puntuatzen gutxieneko adina ez zuelako. Kilometro Bertikaletan puntuatzen hasi zenean eman zuen saltoa. Ikaragarria da. Eta baita eskian ere. Eskian askotan egin dut topo berarekin, eta baita lasterketetan ere, eta hitz egiten dugu. Eskiatzaile eta korrikalari top-a da. Eta oso umila, pertsona apala. Bere bikotea, Emelie Forsberg suediarra, oso korrikalari ona da. Joan zen urteko Zegama Km bertikala irabazi zuen, eta beti oso ongi aritzen da.

Kilian Jornet ez gain, zein mendi korrikalari miresten dituzu?

Korrikalari asko daude oso onak direnak. Aritz Egea gustuko dut, ultra trailletan Javi Gonzalez... jende asko.

Aurten ez da Kilian Jornet etorriko, Himalaian dagoelako, ezta joan zen urteko emakume txapelduna,

Nienke Brinkman herbeheretarra. Ez omen dago faborito argirik. Gizonezkoetan Manuel Merillas, Remi Bonnet, eta Jonathan Albon nabarmentzen omen dira, eta emakumezkoetan Eli Anne Dvergdsdal, Oihana Kortazar, Azara Garcia de los Salmones. Zein da zure helburua?

Zegama-Aizkorri parte hartzea, proba bukatzea, eta konpainia hobean egin ahal badut, hobe. Ez diot denborari begiratzen. Helburua proba bukatzea da, eta ez erortzea, bestela ez baitut bukatuko. 20. edizioa bukatzen badut, hunkituko naiz, ziur. Pandemiako bi urteetan izan ezik, mendi maratoi bat 20 aldiz jarraian egitea, handia litzateke.

Aurreko astean atsedean hartu al zenuen?

Ez, La Granjako (Segovia) lasterketa batean aritu nintzen, K-22 Peñalaran, Gaztela eta Leongo Kopako 22 kilometroko proban. Peña Laratik pasatzen zena. Nire kategorian, beterano C mailan, lehena izan nintzen (3:08:38), eta absolutuan 120 sailkatuetatik 60. Sentsazio oso onekin nago Zegama-Aizkorriko.



ASTEKOA

ANDREA CARRILLO JUANBELTZ

Ai ama!

Maiatzean sartuak gara eta amaren eguna lehenengo asteburuan kokaturik dugu. Hortxe, langileon egunaren ondoren. Amen lana, lantzat ikusiko ez bagenu bezala. Nire irudiz, bederatzi hilabete inguru sabelean eramateak, sekulako meritua dauka. Gorputz aldaketak, beste bizitza baten ardura izatea eta azkenik, erditzea. Hori guztiak ez badira lanak, zer nolako balioa dauka ama izateak?

Galdera ona. Zenbaterainoko balorea ematen dio norberak bere amari? Ama, gu jaioko lehen jada, gure zainketaz arduratzen da guztiz. Bere gorputza osotara eskaintzen du, gu existitu ahal izateko. Ez dakit honetaz guztiz kontziente garen, amatasuna oraindik betebehartzat ikusten den gizarte honetan. Alegia, ez dizute honengatik inolako saririk emango. Ordea, emakumea bazara eta ama ez izatea erabakitzeakotan, bai, zigor leun eta ziurra jaso dezakezu. Are gehiago, aitekin konparatzen badugu, beraiek edozergatik sarituak direlarik, baita denagatik barkatuak izan ere. Hainbestearino, zein seme-alabek arazoren

ZENBATERAINOKO BALOREA EMATEN DIO NORBERAK BERE AMARI?

bizitzaz gozatzea ere nahiko nuke, ama izatetik emakume izatera. Ama izatetik aske, nahi duzuna izatera. Izan zarenagatik esker mila eta ezin izan duzunaz barkatua. Beste batengatik utzitako zure bizitza berreskuratzeko eskubidea izatea nahiko nuke. Zu zeu izateko eta zaintzeko eskubidea. Hori bai zuretzako oparia!

bat edukitzeakotan, errua amarengan uztea den ohikoena.

Ai ama, amatxo maitea. Zelako lana zurea. Hain epaitu eta zenbat eskertu beharra. Bizitza ematen diguna. Gure bizitzagatik berea emateko prest dagoena. Zuk zeure

HARA ZER DIEN

Etapa berri baten aurrean

ETXERAT

Euskal gizarteak 34 urte baino gehiago eman ditu urruntze politikaren amaiera eskatzen, ankerra eta zigzagabea zelakoan, euskal presoak ohiko bizilekutik, familietatik eta bizi-inguruntetik aparte egotera behartzen zituelako. Espetxe politika horrek min eta sufrimendu handia ekarri du.

Baina urruntze politika hori gainditzeak ez du berekin ekarri euskal presoan eskubideen urraketa amaiera. Ikusten dugunez, espetxe politikan arazo berriak daude, berezko botere politiko bilakatu diren fiskaltzak eta justizia auzitegiek sortutakoak.

Zigorra familiaren etxetik gertu betetzeko eskubidea onartu ondoren eta Euskal Herriko espetxeetan daudenez, gure ustez bukatu behar da

politika hori, haien eskubideak errespetatuko lituzkeen espetxe jarduna eragozten duena.

Etxean nahi ditugu. ETXERA. Bai, etxera. Espetxe arloko legeak babesten duten eskakizuna da, ez baitute inola ere esaten zigorrak espetxeko hormen artean bete behar direnik azken egunera arte, araubide irekian betetzeko aukerarik izan gabe, gizartearekin harreman estuagoan bizitzeko aukera ukatuz.

Etxera bidea gertu, etxera itzultzeko bidea eta aukera izan behar da euskal presoentzat ez ezik erbesteratuentzat eta deportatuentzat ere.

Salatzen ditugu, beraz, beren togak mendekurako tresna bihurtu dituzten horiek, ederki asko dakitelako hartzen dituzten erabakiak lege kontrakoak direla, haiek diotenez defendatzen dituzten eta defendatu behar dituzten legeen kontrakoak.

12 urte baino gehiago igaro dira ETAK jardun armatua

bukatzeko erabakia hartu zuenetik, eta bost urte desegitea erabaki zuenetik. Denbora nahikoa baino gehiago jarrerak eta legeak bakearen, bizikidetzaren eta konponbidearen zerbitzuan jar daitezten.

Horrexegatik, euskal gizarteari gure konpromisoa helarazi nahi diogu, bakearen, bizikidetzaren eta konponbidearen alde lan egitekoa; horretarako, bukatu behar dira salbuespeneko jokoerak, ETArean jarduna bukatu eta urte askotara, oraindik, euskal presoan eskubideak urratzeko baliatzen direnak.

Helburu horiek lortzeko, kontsentsuetan sakontzeko konpromisoa ere hartzen dugu, arlo politikoan, sindikalean nahiz sozialean.

Uste dugu hori bera dela gure herriaren irrika bizia: bidegabea izanik denontzat mingarria den egoerari amaiera ematea.

GUTUNAK: Karaktereak, gehienez: 1.900 (hutsuneak barne). GUAIXEK eskubidea du gutuna laburtzeko. Gutunak ezin izango dira kapituluka bidali. Gutunak asteazkena 10:00ak baino lehen bidali beharko dira erredakziora. Gutunarekin batera bidali beharrekoak: egilearen izena eta abizena, NA zenbakia, herria eta harremanetarako telefonoa. Gutuna helarazteko bideak: Foru plaza, 23 - 1., 31800 Altsasu / gutunak@guaixe.eus

GUTUNA

Presoa, sorkuntza, herria

ARITZ IGOA GOÑI ETA AMAIA ERDOZIA ANSO

"Leku askotatik pasatu gara, egoera desberdinak bizi izan ditugu eta berehala sentitzen duzu barruko kanporatzeko beharra edo gogoia." Iñaki Pikabea *Pitik GUAIXEN* esandako hitzak dira. Beste

hauek, Pello Mariñelarena berak preso zegoela idatzitakoak: "Entziero madarikatua, bizi izan genituen egun haien eta askatasun amets haien kalte ordaina zara".

Preso dagoenarentzat, denboraren aurka egin beharrekoa da borrokarik behinena. Hil ala biziko borroka. Askatasunik gabeko denbora arma suntsitzaila da. Bi aukera dituzu: edo denborak

emeki-emeki zapal zaitzan uzten duzu edo denbora zentzuz eta edukiz betetzen saiatzen zara; denbora "hornitu" hori zure eta zure herriaren askapen prozesuen aktiboetako bat izan dadin. Hara non bilakatu zaigun preso sortzaile.

Bakoitza bere gaitasun eta mugekin, preso egon diren guztiak sortzaileak izan dira. Inoiz eskutitz bat idatzi gabekoak zirenak kontakizun aberatsak bidaltzen dituzte;

eskulanetarako "traketsak" zirenak marrazkiak egiten dituzte, edota eskumuturrekoak, edota maketak, tailak, edota... Sorkuntzaren bidez, presoak barruan duena ateratzen du, izan kezka, ilusioa, haserrea, itxaropena...bizi gogoia azken finean. Nork ez du irribarre egin, eta negar, espetxetatik jasotako idatziak. Zenbat zozketa, opari, apainketa, herri denda... ez ote ditugu jantzi

espetxean egindako eskulanekin? Kartzelatik pasatu diren ehunka sakandarrak sortzaileak izan badira, badago bat, Pello Mariñelarena, dohain berezi bat izan zuena barnean zeraman sumendi hori hitzetan eta koloretan herriari itzultzeko. Bere heriotzaren hogeita hamar urte pasa direnean bizi bizirik dauden hitz eta koloreak. Larunbatean gogoratuko dugu Etxarrin. Eskerrik asko Pello.

guaixe
SAKANAKO ASTEKARIA

www.guaixe.eus

GK diseinu zerbitzua:

Ainara Santiago Langarika
info@gkomunikazioa.eus
948 564 275 (3 luzapena)
619 821 436
Ainhoa Etxeberria Pikabea
gk@gkomunikazioa.eus
618 640 056

Administrazioa:

Gema Lakuntza Lopez
admin@guaixe.eus

Zuzentzailea:

Maider Gabirondo Zelaia

Lege gordailua:

NA-633/1995

Tirada: 3.200

LAGUNTZAILEAK

Mank
s a k a n a

BAZKIDEAK



Gobierno de Navarra
Nafarroako Gobernua



Ikasleak egunkariak txikitzen, ondoren zati horiekin papera egiteko. HONDAKIN ZERBITZUA

Hondakinen murrizketa eta sailkapen ikasgaia

Hondakin Zerbitzuko hezitzaileak, estreinakoz, 'Hezkuntzan Hezten' programa garatzen ari dira ibarreko ikastetxeetan. Haren bidez hondakinen murrizketa bulkatu eta ikastetxeetan hondakinak ongi sailkatzeko lanketa egiten ari dira

SAKANA

Ikastetxeetan hondakinen kudeaketa egokiari buruzko hezkuntza ekintzak orain arte Sakanako Mankomunitatea kide den Nafarroako Hondakinen Partzuergoak antolatutako ziren. Ibarreko erakundeak beste pauso bat eman nahi zuen eta *Hezkuntzan Hezten* programa prestatu zuen. Hura ikasturte honetan garatzeko Nafarroako Hondakin Funtzaren dirulaguntza jaso zuen. Haren bidez, "Sakanako ikastetxe guztietara hondakinen mundua hurbildu nahi dugu", azaldu du Amaia Okariz Ormaetxeak, Hondakin Zerbitzuko hezitzaileak. Horretarako, ikastetxeetako arduradunei proposamenaren berri eman eta haiekin bildu ziren.

Zerbitzuko hezitzaileak lastailan hasi ziren "hondakinen murrizketa bultzatzeko eta ikastetxeetan hondakinak ongi sailkatzeko" lanketa egiten. Orain arte programan 650 ikasle inguruk parte hartu dute. Jarduerak

honako ikastetxeetan egin dituzte: Lakuntzako herri eskola, Iturmendiko Arrano Beltza Herri Eskola, Altsasuko Korazonistak ikastetxea, Sakana Lanbide Heziketako Institutua, Altsasu Bigarren Hezkuntzako Institutua, Atakondoa herri eskola, Etxarri Aranazko San Donato herri eskola eta Iñigo Aritza ikastola. Aurreneko hiru ikastetxeek programa osoa egin dute ikasle talde batekin. Gainontzekoetan, hezitzaileak haien eskaerara egokitu dira eta hainbat adinetako ikasleekin tailerrak egin eta bisitan joan zaizkie.

Okarizek azaldu duenez, "aurten hainbat adinendako eskaintza egin dugu, adinka gaiak landu ditugu. Baina heldu den ikasturterako adin tarte jakin bati eskaini nahi genioke programa, hobe funtzionatzen duelako. Helburua bera da: ikastetxeetan hondakinen kudeaketa hobetzea". Izan ere, programari segida emateko dirulaguntza jaso dutela jakinarazi du hezi-

tzaileak. Okarizek nabarmendu duenez, "bien bitartean, ikasle horiek guztiak mezua etxera eramaten ari dira eta Sakanako etxe askotan, hondakinen murrizketak eta bereizketak hobera egingo duelakoan gaude".

Osagarriak

Programa beste lau elementurekin osatu dute. Batetik, programa despeditzeko landutakoaren inguruan ikastetxean jartzen den erakusketa dago. Bestetik, Utzubar EKO Gunera, Altsasuko Garbigunera eta Lanbide Heziketako ikasleek Agoitzeko enpresa batera egindako bisitak daude, besteak beste. Horiekin batera, Lehen eta Bigarren Hezkuntzako ikastetxeetan kopa menstrualen eta haur eskoletan pixoihalen erabilera sustatzeko informazio esku orriak banatu dituzte. Azkenik, Zirika Zirkusen *Berrerabizi* ikuskizuna ikusi dute Haur Hezkuntza eta Lehen Hezkuntzako eskola guztiek hura ikusteko aukera izan dute.

Bost saioko programa

Hondakinen karakterizazioa

Ikasleek eskolan edo klasean aste batean sortutako hondakinen karakterizazioa egiten dute. "Horrela, sortzen dituzten hondakin motak eta ongi banatzen dituzten ala ez ikusten da. Karakterizazioak egiterakoan gehien eta gutxien sortzen diren hondakinak zein diren ikusten dugu. Gehiena, papera eta ontziak dira; gutxien organikoa eta errefusa", azaldu du hezitzaileak. Gainera, adibideen bitartez, ikasleekin hondakinen hierarkia lantzen dute, hau da, murriztu, berrerabili, birziklatu, balorizatu eta deuseztatu. "Ikastetxeko edo ikasgelako egoera hobetzeko zer egin daitekeen hausnartzen dute". Horretarako, hondakinak murrizteko hainbat aholku ematen dizkiete: hamaiketako aluminiozko paperean bilduta eraman beharrean ogitartekoendako poltsetan eramatea, ura botila berrerabilgarrietan eramatea, edota papera bi aldeetatik erabiltzea. Hondakinen sailkapena ere lokotx jolas modura lantzen dute.

Hondakinen ibilbidea

Hondakinek berrerabiliak edo birziklatuak izateko jarraitu behar duten bidea azaltzen diete ikasleei. Arbizuko Utzubar EKO gunean gertatzen denaren berri ematen duen bideo bat ikusten dute ikasleek. Ondoren, muraletan bide horiek irudikatzen dituzte ikasleek, hondakin bakoitzaren bidearen pausoak irudikatuz.

Hezitzaileek eta ikasleek ondoren ikastetxeko hainbat eremu aztertzen dituzte: klaseak, pasabideak, komunak, jantokia, patioa... Okarizek azaldu duenez, "haietan hondakinen bereizketa hobetzeko neurriak eta aholkuak zein izan daitezkeen hausnartzen dute. Guk, besteak beste, bilketa puntuak murriztea eta bilketa puntu osatuak sortzea aholkatzen dugu. Hau da, lau frakzioak (organikoa, ontzi arinak, papera eta kartoia eta errefusa) puntu berean gaika botatzeko aukera egon behar du bereizketa sustatzeko".

Horretan laguntzeko Mank-en kuboak eskuragai jarri dizkie. "Edukiontzia bakoitza zer bota behar den argitzen duen kartelarekin identifikatuta egoteak ere bereizketa ongi egitea bultzatzen du", zehaztu du Okarizek. Bestalde, zakar poltsen erabilera murriztea ere bada helburua: papera eta kartoia solte biltzea; organikoa, poltsa konpostagarrietan eta poltsa horiak eta grisak erabiltzeak ontzien eta errefusaren bereizketan. Okarizek azaldu duenez, "poltsak behin eta berriro erabil litezke kuboak zikindu ez daitezkeen eta jasota daukatena bakarrik bilduz, poltsa kuboan geldituz".

Bukatzeko, zenbait ikastetxetan hezitzaileak garbitzaileekin eta jantokiko langileekin hitz egin dute, "eskolan bereizi diren hondakinak dagokien edukiontzian buka dezaten, izan ere langile haiek sailkapenaren azken pausua baitira", argitu du.

Murrizpen tailerra

Kafe poltsak eta oihalak berrerabiliz, beraien hamaiketarako poltsak, Bock'n Roll-ak, sortu dituzte. Horretan Alazne Juaniz Ezpeletak lagundu die, Erabiliko jostunak. Juanizek eskaintako tailerretan arroparen kontsumoaren inguruan sentsibilizatu ditu ikasleak, eta, bide batez, josten ikasten dute ere.

Berrerabilpen tailerra

Etxean apurtutako hainbat gauza eraman dituzte ikasleek, haiek konpontzen ikasteko eta haien bizia luzatzeko. "Horrela, gauza berriak erosi beharra eragozten dugu", azaldu du Okarizek. Konponketa tailerretan jostailu, etxetresna elektriko txikiak eta halakoak konpontzen ikasi dute Batuta Sakanako Luis Angel Diaz Medinarekin.

Birziklapen tailerra

Hezitzaileek ikasleak paperaren kontsumo arduratsuan sentsibilizatzeko aparte, egunkariekin paper birziklatua egiten erakutsi diete.

Zure botoarekin posible da
JAVI ALKATE

Aurrera!



GEROABAI

LA NAVARRA DE TODOS/AS
GUZION NAFARROA

VOTA EMAN BOTOA

Sexu heziketa landu dute hiru ikastetxetan

Sexu eta Ugalketako Osasun Arreta Zentroaren eta haren egitekoaren berri eman zien DBHko 3. mailako ikasleei hezitzaileak. Sexualitateaz hausnartu eta ikasle guztien iritziak jasotzen dituzten muralak egin zituzten; ikastetxetan ikusgai izan dira

SAKANA

Etxarri Aranazko osasun etxean egoitza duen Sexu eta Ugalketako Osasun Arreta Zentroak (SOUAZ) bere egitekoen artean du sexu hezkuntza sustapena. Horregatik, Maite Salas Armen-dariz sexu hezitzailea Andra Mari ikastola, Iñigo Aritzta ikastola eta Altsasu Bigarren Hezkuntzako institutuan izan da, zehazki, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako 3. mailako ikasleekin. Salas ikastetxe bakoitzeko orientatzaileekin aritu da elkar-lanean.

Salasen eskutik ikasleek sexualitateaz hausnartzeko aukera izan zuten, horrela gazteek "beren burua ezagutu, onartu eta erotika adierazten ikastea da helburu hori, haiendako koherentea eta gogobetegarria izan den moduan eta beste koherentzia batzuk errespetatuz". Horretarako, ikasle gazteek bizi dituzten sentimendu, emozio, desioak, esanahiak eta abarrak izan zi-



Altsasu Bigarren Hezkuntzako Institutuko ikasleak erakusketari begira. UTZITAKOIA

tuzten abiapuntu. "Ikastetxe bakoitzean, norberak bere ideiarekin parte hartu zuen. Ondoren guztien artean sexualitateaz hitz eginen duen murala sortu genuen. Eraiki ondoren, sexualitateen muralari eta aniztasunari erre-

paratu genion", azaldu du sexu hezitzaileak. Gainera, zerbitzua- ren berri ere eman zien Salasek: non dauden, zer lan egiten duten eta zer beharri erantzuten dieten. Ikasleek sortutako irudi horiek guztiak eta SOUAZen sexualitateari buruzko panelekin batera erakusketa ibiltaria egin dute.

Gazteen artean sexualitatea modu positiboan lantzen duen Gozamenez programaren baitako erakusketa da hori. Duela bi aste Andra Mari ikastolan izan zen ikusgai, joan zen astean Iñigo Aritzta ikastolan eta aste honetan Altsasu BHIn. Gainera, Gozamenez film laburren Altsasuko lehiaketako sari banaketa eginen da gaur, 18:00etan, Intxostiapunta gazte gunean. Hori dela eta, ikasleek egindako muralak asteburu guztian ikusgai izanen dira gazte gunean.

Zentroaz

Bere lan esparruetako batzuk dira: sexu orientazioa eta hezkuntza; familia plangintza; haurdunaldiari eta erditzeari emandako arreta; ginekologia arreta eta klimateria; ginekologia minbizien detekzio goiztiarreko programak eta abar.



Ondarria industrialdeko B kalea. ARTXIBOA

Udalak Ondarrian hobekuntza lanak eginen ditu

Kale bateko espaloiak eta zorua berrituko dira. Horrekin batera, ibaian harri lubeta bat eginen da, luizi batek

ALTSASU

Altsasuko Udalak Ondarria industrialdeko D eta B kaleetan euri urak biltzeko eta zorua berritzeko lanak egin zituen joan den urtean. Aurten, berriz, C kalean espaloiak konpondu eta kaleko zorua guztiz berrituko duela jakinarazi du Javier Ollo Martinez alkateak, "izan ere, inguru horretan urtetan ez da inolako lanik egin eta oso hondatuta dago". Industrialdeko B kaleari 2021eko uholdeak eragin zion: ibaiaren ur emariak luizi edo gerrietua eragin zuen. Lur mugimendua B kaleko espaloitik bi metrora izan zen. Espaloi azpitik pasatzen dira azpiegiturak, tartean, gasarena. "Arriskutsua denez, konponbidea emateko ibaian harri lubeta bat egin nahi dugu", azaldu du Ollok. Lanek 104.963,36 euroko aurrekontua dute eta horren erdia, 52.481,68 euro, Nafarroako Gobernuaren dirulaguntzaren bidez ordainduko da.

Bi gehiago

Ondarria industrialdeko lan emateko Altsasuko Udalak egindako deialdian beste lan batzuk zeuden, lotea osatuz. Baina udalak lanak emateko egindako eskaintzak hutsik gelditu zirenez, egin gabe gelditu ziren Zangituko bidearen konponketa, Beheko bentako harri lubeta eta Altzania ibaiko gainezkabidearen konponketa Errota Txikin. "Udaleko Lan Zerbitzuak eta Hirigintza Sailak lan horien premia aztertuta, azken biak jo ziren lehen-

tasunezkoak", azaldu du Ollok. Horregatik, udalak erabaki du aurrekontu aldaketa egitea eta 65.447,48 euro bideratzea lan horietara. Kopuru horretatik 26.237,85 hustubideari dagozkio. Lan horren BEZa kengarria da.

Zelandi

Ikastetxe publikoan udan mantentze lanak egiten segituko du Altsasuko Udalak. Alde batetik, joan zen urteko obrari jarraipena emanez, argindar sarea berritzeko bigarren faseko lanak eginen dira. Lan horiek 130.626,6 euroko aurrekontua dute, horietatik Hezkuntza Departamentuak eta udalak erdibana ordainduko dute.

Horrekin batera beste hainbat lan eginen dira ikastetxean: fotokopiagailua gelako pareta bat kendu, 2019 eta 2021ean margotu gabe gelditu ziren gelak margotu, eta pedagogia parkea jartzea berdegunean (Amanespila kale ondoan).

Beste inbertsioak

Ferietako zaldi lehiaketarako 133 hesiak konpontzeko (granailatu eta galbanizatu) 17.000 euro. Baso lanei dagokienez, Balankalekuko itxitura berrituko du Altsasuko Udalak, azienda sartu eta zuhaitz landaketa ez hondatzeko 19.383,1 euro. Erdia udalak ordainduko du eta beste erdia Gipuzkoako Partzoneria Txikiak. Apirilko udal bilkuran Altsasuko Udalak guztira 437.402 euroko balioa duten inbertsioak egitea erabaki zuen.

EGUN ON SAKANA
Goizero 10:00-12:00
Errepikapena 14:00-16:00
web bidez: www.guaixe.eus
107.3 FM
beleixe

Buruan aurtengo eta etorkizuneko inbertsioak

Hala dabil Irañetako Udala. Aurten dermioko bi bide eta zubia konponduko ditu. Basoan zer egin zehazteke du. Nafarroako Gobernuak ur biltegiko lana finantzatu du, eta ikusteko dago udaletxe berri eta zaharrerako laguntzarik iristen den

IRAÑETA

Irañetako Udalak aurten 284.142,08 euroko sarrerak eta 283.769,93 euroko gastuak izanen ditu. Joan zen urteko kontuekin alderatuta, diru sarrerak 53.175,36 euro jaitsi dira eta gastua, berriz, 58.102,22 euro hazi da. Dirulaguntzak jasotzea eta dirua inbertitzea, zifra horien atzean hori dagoela azaldu digu Iñaki Arangoa Zia alkateak. Udalaren arduruan Ainhoa Beraza Maizari garagartzaroen hartu zion lekukoa Arangoak.

Inbertsioetarako 163.040,19 euro daude, eta Arangoak baieztatu duenez, egitasmo mordo bat ditu udalak buruan eta esku artean. Duela bi hilabete, udalak herri sarrerako zorua, San Gregorio kalekoa, konpondu zuen. 300 bat metroko luzeran berritu da asfaltua. Bide batez oinezkoentzako hiru zebra bide egin dira, haiek bi goratuak. Horretara, 43.000 euro bideratu zituzten. Arangoaren arabera, inbertsio horri aurre egiteko, udalak Nafarroako Gobernuak emandako erabilera askeko 19.087,2 euroak eta udalaren diruzaintzaren gerakineko zati bat erabili ditu.

Egitekoen artean bi lan ditu Irañetako Udalak: "alde batetik, Tufeta eta Zabalgo bideak konponduko ditugu abeltzaintza azpiegiturak berritzea gobernuak emandako dirulaguntzarekin. Eta, bestetik, uholdeek zubian eragindako kalteak konponduko ditugu foru eta estatuko gobernuaren dirulaguntzekin". Alkateak jakinarazi duenez, aurreneko lanak 43.000 euroko aurrekontua du eta atzenekoak 35.000 eurokoa. "Biak ere agorrilaren akaberarako despidituta egin behar dute", gaztigatu du.

Egiteko

Irañetak 2020tik ur biltegia du, baina han iragazpen sistema jartzea falta da. Gauzak horrela, ura etxeetara garbiago iristeko lanak heldu den urtean egingen



Herriko sarrerako kaleak, San Gregoriok, zoru berria du.

IRAÑETAKO UDALAREN ASMOA DA BASOKOETXE BORDAN IKASLEEK EGONALDIAK EGITEA

ditu udalak. "Horretarako, Nafarroako Gobernuaren 72.161,9 euroko dirulaguntza ziurtatuta dugu", jakinarazi du Arangoak. Aldi berean, foru administrazioak Tokiko Inbertsio Plana ebatzi zain daudela jakinarazi du alkateak: "bi eskaera egin ditugu. Bata da egungo udaletzeko teilatua konpontzea, dauden itxerurak kentzeko. Izan ere, udalategia 2011n berritu zenean, teilatua ez zen konpondu. Bestea, berriz, udaletxe zaharra zaharberritzea da".

Azken eraikin horren inguruan, Arangoak jakinarazi du: "gaur egun lau traste daude han. Lehen mediku kontsultategia hartzen zuen, eta Uhartea Arakilgo sendagilea astean behin etortzen zen. Baina orain medikua ez da etortzen, eta irintarrok Uhartea Arakilerako joan behar izaten dugu". Ibilgailurik ez duten adinekoek

besteren batekin egin behar izaten dute joan-etorria.

Bestelakoa da Basokoetxe bordan egin nahi lukeena udalak: hara ikastetxeetako ikasleak egonaldiak egitera joatea nahiko luke. "Horretarako, bordaren erabilera arautzen duen ordenantza aldaketa bat egin dugu, tarifei dagokien puntuan, hain zuzen ere. Nafarroako Gobernuordezkariak ere hura ikusi nahi dute, zer erabilera eman dakioken jakiteko".

Gaztainadia

Egin nahiko litzuketenen artean baso lanen bat ere badago. Pinudi batean baso aprobetxamendua egin zuten, irabazitakoaren %20 basoan inbertitu beharra baitute udalek. Irañetako Udalaren aukeretako bat da baso zatiren bat garbitzea, edota, gaztainadian zerbait egitea. "Ithabar eta Bakaikurekin batera gaztainondoak berreskuratzeko proiektu batean gaude, Nafarroako Gobernuak, Intia enpresa publikoa eta Sakanako Garapen Agentzia. Altxor bat dugula esaten dute. Aurrekoan Intiakoe hiru herriotakoendako ikastaroa eman ziguten", azaldu du Arangoak.

Altsasuko udal kontuak ongi, eta superabitarekin

Joan den urteko diru kontuak itxita, Altsasuko Udalak 953.439,11 euroko superabita izan zuen

ALTSASU

Altsasuko Udaleko Ogasun Sailak udalaren joan den urteko kontuak itxi ditu. Kontulariek jakinarazi dutenez, udalak 953.439,11 euroko superabita izan zuen 2022an. Bestetik, udalak gastu orokorretarako duen diruzaintzako gerakina 3.503.902,69 eurokoa da. Javier Ollo Martinez alkatea datu horiekin "pozik" dago: "Altsasuko Udalak ez du diru sarrera handirik. Udalak bere ohiko aurrekontuarekin eskaintzen dituen zerbitzuei eusten die eta, aldi berean, diruzaintzako gerakinarekin guztiz edo zati batean finantzatuak lanak egiteko aukera du. Hori kudeaketa arduratsu eta zentzudunak egiten du posible". Aldi berean, Ogasun Saileko langileendako esker ona adierazi du.

Behin 2022ko kontuak itxita, eta aho batez onartuta, alkateak gogorarazi du, dagoeneko diruzaintzako gerakinetik 632.378,88 euro aurten egingen diren hainbat lanetara bideratuta daudela (ikus 8. orria). Ollok aurreratu duenez, hurrengo bilkuran udalak bi inbertsiori oniritzia eman dio. Batetik, futbol zelaiko belarra eta argiteria berritzea eta futbol zelai zaharrean futbol 7ko zelai berria eraikitzea. Bestetik, herriko Dantzalekuraino doan ur hornidura sarea berritzea.

Egindakoak

Altsasuko Udalak joan zen urtean 2.029.756,5 euroko balioa zuten inbertsioak egin zituen. Ollok

nabarmendu duenez, "joan zen urtean egindako inbertsio gehienak diruzaintzako gerakinarekin finantzatu ziren. Zenbaitetan, dirulaguntzak aurrekontuaren zatia estali zuen. Aparteko kasua da aurki despidituko diren Amardrea plazako lanak, udalak bertako aldamenekin batera finantzatu duena". Egindakoen zerrendan ageri diren lanetako batzuk dira: argiteria publikoa berritzeko lanen bigarren fasea, eskola publikoaren elektrizitate azpiegituraren berrikuntza, hainbat kaletan egindako hobekuntza lanak edota jubilatua elkartean egindako estalpea.

Joan den urtean hasi eta aurten despidituko diren lanen artean daude, besteak beste, kultur gunearen pareko zabalguneko estalpea, 2021eko uholdeek baso eta abeltzaintza azpiegiturretan eragindako kalteen konponketa, hainbat basolan edo heldu den urtean indarrean sartzean aurreikusten den Balorazio Ponentziaren berrazterketa.

Alkateak, bestetik, igerileku estaliak zabalik mantentzeko udalak joan den urtean egindako ahalegina nabarmendu nahi izan du: "otsailetik gasaren prezioa izugarri hazi zen. Horri gehitu behar zaio pandemia aurreko erabiltzaile kopurua ez duela berreskuratu. Arrazoi horien gatik Altsasu Atabo SM enpresa publikoari udalak bere ekarpena handitu behar izan zion. 166.137,12 eurotik 386.137,12 euro izatera pasa zen ekarpena".



Sakanako Bizikleta Egunarekin txirrindularien tropelak ibarra zeharkatzen du. ARTXIBOA

Turismo jasangarrirako planak finantzaketa du

Helburu horrekin Plazaola, Ultzama eta Sakanan 2023 eta 2026 artean jarduerak egiteko bost milioi euro jasoko dira. Planean jasoak dauden proiektuetako batzuk hiru eskualdeek elkarlanean landuko dituzte, baina beste batzuk eskualde bakoitzean

SAKANA
Estatuak Nafarroako Jasangarriratasun Turistikoaren 2023 Planean bildutako bost proiektuak eta haiek garatzeko 17.201.000 euroko aurrekontua onartu zituen hilaren 9an. Proiektuen artean Plazaola, Ultzama eta Sakana eskualdeetako Helmugetako Turismo Jasangarriratasun Planeko

jarduerak daude, bost milioi euroko aurrekontua dutenak. Dirua Berreskurapen, Eraldaketa eta Erresilientzia Planeko Next Generation EU funtsetik aterako da eta Cederna-Garalur izanen da hura kudeatuko duena.

Aurten hasi eta 2026ko garagartzarozan despedituko den plan horren helburua da Plazaola,

Ultzama eta Sakana "turismo helmuga iraunkor, irisgarri eta benetako bihurtzea". Aldi berean, turismo sektorea eraldatzen eta tokiko ekonomian duen pisua handitzen lagundu nahi du, eta landa gune txikietan enplegua sortzen eta zerbitzuak mantentzen lagundu nahi luke. Aldi berean, planak aurreikusten du erakun-

de publikoen, turismo eragileen eta herritarren arteko lankidetzan oinarritutako partaidetzazko kudeaketa eredu bat ezartzea, baliabideen kudeaketa iraunkorra, beste jarduerak batzuekiko bateragarritasuna eta tokiko nortasunarekiko errespetua ahalbidetzeko. Nafarroako Gobernuko Turismo, Merkataritza eta Kontsumo Zuzendaritza Nagusiak lurraldeko partaidetza eta jarduerak turistikoak antolatzeko Gune Turistikoak Kudeatzeko Unitateak sortu zituen.

Ibarra

Sakanako Garapen Agentziako turismo teknikari Paki Urbitarte Cabrerak azaldu duenez, "Helmugetako Turismo Jasangarriratasun Planak egiteko Nafarroa zortzi Gune Turistikoak Kudeatzeko Unitateetan banatu zuten, eta Sakanak, Plazaola eta Ultzama-rekin batera, Gune Turistikoak Kudeatzeko Unitatea osatzen du. Aurreko bi urteetan Nafarroako gainontzeko eskualdeek beraien Helmugetako Turismo Jasangarriratasun Planetarako dirulaguntzak jaso dituzte. Gurea azkena izan da. Aurreko urteko deialdian ezin izan genuen eskaera sartu, eta aurtengoan onartua izan da".

Urbitartek argitu duenez, "Plazaola, Ultzama eta Sakanako planak hainbat jarduerak ditu. Haietako batzuk hiru eskualdeetako eragileek elkarrekin landuko ditugu". Hala ere, badaude eskualde bakoitzak ga-

ratuko dituenak ere. Sakanari dagokionez, planean dauden hainbat egitasmoren artean hiru aipatu ditu: Sakanako bizikletendako ibilbidea, Altsasuko Dantzaleku basoan dagoen Sakana Haritzen Lurra ibilbidea irisgarri egitea eta Uharteko Arakilgo Itxesin zikloturistei eta Donejakue bidea egiten duten pertsonei zuzendutako aterpetxe bat egitea. Urbitartek zehaztu duenez, "zikloturismoan indarra egin nahi dugu eta bidea egiteko bi milioiko aurrekontuaren zati bat jasoko dugu oraingoan".

Hartutako erabakia aldizkari ofizialean argitaratu ondoren, tramiteak hasiko dituzte aurrekontua Nafarroako Gobernuari transferitzeko. Ondoren, hitzarmena sinatu beharko dute Nafarroako Gobernuak eta Cederna-Garalurrek. "Ez dakigu noiz sinatuko duten, Turismo Zuzendaritzak udazkenean izan daitekeela aurreikusten du. Udazkenean bada, proiektuak aurten gauzatzen has gaitezkeen ez dakit, bestela, heldu den urte hasieran hasiko ginatke haiekin lanean", azaldu du turismo teknikariak.

PLANEAN DAUDE IBARREKO BIZIKLETA IBILBIDEA, ATERPETXE BAT ETA BIDE BAT IRISGARRI EGITEA

DUELA 25 URTE...



AEK anpada Urdiainen

Ordura arte Bizkaian ospatzen zen AEKren akanpada Nafarroara, Sakanara ekartzea erabaki zuten, "eskualde euskalduna izateagatik eta paraje zoragarriak izateagatik". Euskal kulturaren topaleku eta ispilu izateaz aparte, euskaraz hitz egiteko guneak eskaini nahi zituen AEK-anpadak. Horretarako ekitaldiz betetako egitaraua antolatu zuen AEK-k maiatzaren 15etik 17ra arte. Kanpa tokia futbol zelaiaren zegoen eta ekitaldiak plazan, karpabatean, frontoian eta udaletxean egin ziren.



ERGOIENA BIZIRIK

Animazioa Unanun

Ergoendarrak jardueren inguruan elkartzeko helburuz sortu da Ergoiena Bizirik. Iarunbaterako zuen bere estreinako emanaldia programatuta Unanun. Denok Bat elkartearen 20 haur eta haien gurasoak elkartu ziren. Ameli bikoak ipuin kontaketa eskaini zuten.

Ergoiena Bizirik taldeko kideak pozik zeuden: "oso gustura egon ginen. Unanura Dorraoko eta Lizarragako haur asko joan zirelako. Horrek ekarri zuen, emanaldiaren ondoren, jendea karrikan hizketan gelditzea".

EMAN BOTOA



GEROABAI

LA NAVARRA DE TODOS/AS
GUZTION NAFARROA

Zure botoarekin posible da

**UXUE
PRESIDENTA**

Aurrera!

Gazte eta alkate binomioa

Gaur hasi da hauteskunde kanpaina. Aurreko deialdietan aurkeztu eta alkate edo kontzejuko presidente izan ziren hiru sakandarrekin elkartu gara. Hiruen berezitasuna da gazte zirela hartu zutela herriko aginte makila

Alfredo Alvaro Igoa SAKANA

Erakunde politikarekiko halako distantzia bat sumatzen da gizarte guztian, baita gazteengan ere. Instituzioetatik aparteko bestelako eragileen bidez jardun politikoan ari dira hainbat gazte. Udal hauteskundeetan atarian, gazte zirela beraien herriko alkate edo kontzejuko presidente izandako hiru sakandarren iritziak jaso ditugu.

Zer esan zizuten etxean hautagaia zinela esan zenuenean?

Alberto. Lanean hasteko. Kritikak izan ziren. Beste garai batzuk ziren, argi eta garbi baldintzatzen zuen beste gatazka bat zegoen. Eta, beharbada, baldintzatzen zituen heinean ekintzaileagoa izatera ere bulkatzen zintuen.

Xabier. Ez sartzeko, saltsa zela. **Garazi.** Animoak jaso nituen. **Eta lagunek?**

A. Orduko alkate Tatonoren anaia, Imanol, kuadrillakoa da. Herriko politikarako loturak ez gintuen urrun harrapatzen. Ez zen kritikarik egon.

X. Ongi. Azkenean, kontzejuan sartu ginen gehienak kuadrilla-koak ginen, eta ongi ibili ginen. Elkar ezagutzen genuen.

G. Ezagunak eta kalean elkarrekin ibilitakoak ginen kuadrilla batek osatu genuen zerrenda. Hori babes puntu eder bat zen. Ingurutik ere animoak jaso genituen.

Hautagai izanen zinela jakin zenetik ardura hartu arteko bitarte horretan aldaketarik sumatu zenuen inguruan?

A. Ez. Animoak izan ziren gehien bat. "Ezagun" izatera pasatzen zara.

G. Garai hartan kristoren ilusioa zegoen.

X. Beti adar jotze pixka bat egoten da. Lau urtetan segitu zuen. **Alkatetza hartzea espero zenuen?** **X.** Inolaz ere.

G. Eeez. Badaezpada gindoazen.

A. Bai, jakinarazia genuen nik Tatonoren lekukoa, alkatetza, hartuko nuela. Hamaikatik zazpi zinegotzi lortu genituen eta abantaila izan zen. Gehiengoa ikustean gainontzeko zinegotziek alper-harria ez pasatzeko eskatzen ziguten. Uste dut ez genuela inoiz alperra pasa, gauzak egiten ziren. Hala ere, gehiengoa dagoenean saihestezina da. Baina alderdi independente baten barruan hainbat kezka daude, zure taldean bertan alperra pasatzea ere zaila da, talde berean hainbat iritzi eta ideologiatako jendea dagoelako. Onerako eta txarrerako hainbat ikuspuntu daudenez, batzuetan oposizioa talde barruan baduzu. Gai bat udalera eramaten genuenerako askotan hitz egindakoa zen. Herriaren iritzia jasotzeko modua ere bada.

Politikarekiko interesik bazenuen?

A. Bai. Kuadrillan politikaz nahikotxo hitz egiten zen. Nazioko politikaren halako kontzientzia bat bazenuen. Herriko mailakoa ere, baina beste modu batera.

G. Bai. Nahiz eta udala gure habitata ez izan, kalea izan da beti gure gunea eta aritzeko gunea. Ibiliak gara kontu batean edo bestean ikasle garaian, gaztetan...

X. Ez neukan ezer ez. Ez nekien nola funtzionatzen zuen kontzejua. Egia esateko, 'mus' geunden. **Trebe ikusten zenuen zure burua?**

G. Jakinda ez gara jaiotzen. Denboratxoa behar da udaleko txoko, zirrikitu eta dinamika ezagutzeko. Gogotsu ekin genion lanari, erraz murgildu ginen lanean. Gero erraztasunik ez genuen izan egoera zena zelako, legegintzaldi oso gogorra izan zen: Yolanda Barcina Angulo Nafarroako presidente gisa azken urteak, ekonomikoki oso zapalduak, krisiaren okerrera, Nafarroako Gobernutik ere oso blokeatuta eta oso

menpekogeunden udalak. Udalean sartu eta aste berean Recindsa enpresa itxi zuten. Fabrikak itxi eta dinamika horretan okerrera biztanleek bizi duten egoera da, egon daiteken gizarte eta ekonomia drama horri eustea. Munduko umiltasun guztiarekin, genekien onena ematen aritu ginen. **X.** Hasieran ez.

A. Bai. Nik buru indar handia nuen. Gaztetasunak aparteko energia ematen dizu, eta, beharbada, zure mugak ez ezagutzearen axolagabetasuna ere. Edo non sartzen zaren ez jakiteak ausartago egiten zaitu. Azkenean, lan eginda ahal zenuen. Pertsona bateratzailetzat dut nire burua. Uste nuen herria hobetzeko gaiak landu eta hitz egiteko ariketa bat izanen zela. Printzipioz, ez luke zaila izan beharko. Adin harekin oso idealista nintzen. Baina errealtateak lurrera jaisten zaitu. Gainera, udaleko dinamika aldatzea oso zaila da. Baina pitteka-pitteka ekarpenak egiten dira. Pertsona bakoitzak kezka batzuk ditu, eta horregatik da ona errotazioa egotea, hainbat norabidetan eraikitzeko.

Erreferenteen zen gazte politikariren bat zenuen?

G. Gure kontsolamendua zen: 'begira, baten batzuk sartu gara; ez dakit nongoa ezagutzen dut, bestea ere...' Ezagunak ziren. Bilduko eta ezker abertzaleko egitura elkarrekin egoteko tartea genuen, elkarren proiektuen berri jakiteko eta, nolabait, elkar elikatzeke. Garrantzitsua da, zu zurean ez sartzeko eta Altsasutik kanpo mundua badagoela eta existitzen dela ikusteko.

A. Tatonoren adibidea hurbil genuen kuadrillan. Joera bat markatu zuen. Aurretik, Sakanan bezala, Irurtzunen arazo politiko handia zegoen. Oso polarizatua zegoen, ezker abertzalea eta es-



Alberto Azpiroz Goldaraz

Irurtzongo Udalean Agrupacion Electoral Independiente San Martinekin sartu zen 23 urterekin, Juan Pedro Arregi Sarasa, Tatono, zerrendaburu zela. Hitzartutako lekuko aldaketaren ondoren, 24rekin hartu zuen herriko aginte makila 1996an, eta 1999ra arte izan zen alkate. Hurrengo legegintzaldian zinegotzia izan zen.

kuina. Tatonoren lantaldeak blokeen politika utzi eta herriaren alde gauzak egiteko kezka zuen, hainbeste enfrentamendu gabe. Akatsekin, jakina, baina garai hartan gauza asko lortu ziren. Erreferentea hori zen: bateratzaileagoa zen norbait. **X.** Hasieran berde-berde egoten zara, baina berehala joaten da. Denborarekin ikasten duzu. Azkenerako, ideiak hartzen joaten zara eta ikasten duzu nola funtzionatzen duen. Egia esateko, kontzejuan geunden denok geni-

"BATERATZAILEAGOAZEN NORBAIT; HORIZEN NUEN ERREFERENTEA."
ALBERTO AZPIROZ

"JENDEAK NAHI DU IKUSTEA HERRIAK ETORKIZUNA DUELA, HERRIA ALDATZEA"
XABIER SENAR

"DENBORATXOA BEHAR DA UDALEKO TXOKO, ZIRRIKITU ETA DINAMIKAK EZAGUTZEKO"
GARAZI URRESTARAZU

tuen ikasketak, eta gutxi gorabehera, denen artean egiten genuen. Azkenerako, burokrazia ulertzen joaten zara eta, jakinez gero, erraza da. Denborarekin ikasi egiten da. Eta gogoia egonez gero, lehenago.

Zerk bulkatu zintuen pausoa eman eta hauteskundeetan parte hartzera?

A. Nire bizitzako erabakietan nire aukeretan sinistu dut beti, zenbait gauzen alde apustu egin behar dudala. Batzuetan ordaindu behar izaten duzu. Erronka baten aurrean ez naiz beldurtu, beti heldu diot. Batzuetan erronkak berak motibatzen zaitu. Kasu honetan hori izan zen, 'zergatik ez?'

X. Esan nuen: 'azkenean, orain edo gero, tokatuko zait herriarendako lan egitea. Orain 24 urte dauzkat, denbora daukat eta nahiago dut orain egitea gero baino'.

G. Legeztatzearena zerrendan sartzeko arrazoi nagusietako bat izan zen, nagusia ez bazen. Nahiz eta Bildu legeztatu, ezin da ahaztu salbuespen egoeran jarraitzen genuela: ordura arte ezker abertzaleko zerrendetan egondako pertsonak ezin ziren hautagai izan. Hortaz, gazteetatik tiratu eta aurrera egin zen.

X. Ikusten duzu herrian gabezia batzuk daudela, herria aldatu behar zela. Kontzejuan geundela gauzak egin genituen. Lehendabiziko urtea izan zen pixka bat



Xabier Senar Veiga

Lizarragako kontzejuko presidentea izan zen 2015 eta 2019 urteen artean. 24 urte zituela hartu zuen ardura. Talde independente bateko hautagaitza batean aurkeztu zen. Hautagaitza osatzeko aurretik herrian "hauteskunde txikia" egin zuten. Lizerratarrek bost pertsonari eman zieten botoa eta boto gehien jaso zituztenek osatu zuten hautagaitza. Senar izan zen boto gehien jaso zituena.



Garazi Urrestarazu Zubizarreta

Altsasuko alkatea izan zen 2011 eta 2015 artean. Karrera akaberako proiektua aurkeztu eta hurrengo egunean, 24 urterekin, hartu zuen aginte makila. Bilduko zerrendarekin aurkeztu zen. Ezker abertzalearen zerrendak legez kanpo uzten zituzten garaia ziren, eta aurreko asteak "nahiko aldrebesak" izan ziren, ez baitzekiten Bildu legeztatuko zuten edo ez, eta, ondorioz, parte hartu zezaketen.

ikasteko: zer gastu dauden, nola alda genitzakeen, herriak, herriko lanak, festen antolamendua nola funtzionatzen zuen. Gainera, udaleko idazkariarekin zer harreman egin beharra daukagun, nola funtzionatzen duen, zer burokrazia dagoen... Batez ere lehendabiziko urtea hori pixka bat. Mundu honetan beldurrik ez da izan behar. Sartzen denari esan beharrekoa da hasieran beldurrez hartzen duzula: 'kristoren kargua!' Ez da beldurrez hartu behar, gogoz hartu behar da! Helburu bat hartuta hori egin eta kitto.

Zuen gaineratik Sakanako Mankomunitatea, Nafarroako Gobernu...

X. Kontzejuen kasuan udala ere. Lau pauso eman beharra. Azkenarako, denekin pixka bat borrokatu behar duzu. Gu bezalako herri txiki batek, gogor hartu beharra daukagu, indarrarekin. Eta ez pentsatu gure artean arazoak daudela, baizik eta arazo gehienak Iruñean daudela. Azkenarako, Nafarroako Gobernuak da dirua ematen duena, eta gauzak egiteko dirulaguntzak behar dira. Herri txiki bat ezin da gastu guztiez kargu egin. Hurrengoendako nire aholkua da hemen ez garela haserretu behar. Hemen batu egin beharko ginatke, eta borrokatu beharra daukagu Nafarroako Gobernuak horrelako herri txikiei dirulaguntza gehiago emateko, eta gauzak egiteko erraztasunak emateko. Batez ere

erraztasunak. Eta burokrazia ahal den eta gutxiena murriztu, proiektu politak daudelako hemen eta herri txiki askotan. Ez daiteke paper baten zain egon gauzak egiteko. Zeren urteak pasatu egiten dira eta gauzak ez dira egiten, eta herri txikiak hiltzen ari dira. G. Hamahirutik lau zinegotzi genituen eta gutxiengoan gobernatu genuen. Lauren artean administrazio egitura hori kudeatzea zaila da. Horregatik, nik uste, eskuzabaltasunez jokatu genu-

la eta beste talde politikoei eskaini genien udalean eta gurekin gertutik lanean aritzeko aukera. Askok ez baziren ere, lan eta erronka batzuk hartu zituzten. Jakin genuen batekin eta bestearekin gobernatzen. Zen egoera izanda ere, Sakanako Mankomunitatean gure esku zeudenak ere egin genituen. Orduan sortu zen Sakanako Garapen Agentzia. Hura zen gure programetako helburuetako bat, gure tresna propioak sortzea. Egoerarik okerrean

erantzuten jakin genuen. Orduetik eman dituen fruituak hor daude. Eta Nafarroako Gobernuak, oso oso zaila zen haiekin harreman estu eta normalizatua mantentzea. Oso estututa geunden udalak: inbertsiorik ezin genuen egin, gastu korranteetarako ere oso mugatuta geunden, ordura arteko diru sailak murriztuta, gure egiturei aurre egiteko kristoren zailtasunak genituen. Horrek kateatu egiten zaitu eta zure politikei eta herriko beharrei aurre

egiteko are zailtasun gehiago jartzten ditu.

A. Nafarroako Gobernuarekiko erlazioa ez zitzaidan asko gustatu. Hura beste maila bat da, goitik begiratzen zintuzten. 24 urterekin hara iristen zinen zenbait gaiez hitz egitera eta ia-ia mespretxuz hartzen zintuzten. Adinak adin, Nafarroako Gobernuak ikusi beharra du zu herriaren ordezkari bat zarela, zor zaizun begirunea izan behar du. Beti bezala, badago merezi duen jendea. Gainera, udalak gobernuari beti eskatzen egon behar. Ez da sistema ona.

X. Bargazpi taberna zabaldu genuen, argindarra sortzeko mikrosarea egin genuen, herriko eta frontoiko argiteria aldatu genuen. Gauza asko egin genituen. Baina egia da orduak sartu behar direla. Lanik egin gabe ez dago ezer mundu honetan. Ordu asko sartuz gero, gogoa egonez gero, eta denak bat eginez gero, gauzak egiten dira. Eta beldurrik ez da izan behar. Bai, dirua oztupo bat da. Pentsatu beharra daukagu nola lor ditzakegun dirulaguntzak. Ateak jo behar dira. Ez pentsatu Nafarroako Gobernuak dagoela bakarrik. European eta leku askotan ere badaude dirulaguntzak. Denak bilatu behar dira. Askotan hobe da aholkulari on bat izatea. **Aurretik ari zinen esparru instituzionalean?**

X. Ez. Kontzejuren batzarretara joana nintzen.

HURRENGO ORRIAN JARRAITZEN DU »

ETXEBIZITZARAKO ENERGIA BERRIZTAGARRIAK

- EGUZKI PLAKEN INSTALAZIOA
- IBILGAILU ELEKTRIKOEN KARGAGAILUAK
- BATERIAK
- AEROTERMIA BIDEZKO BEROKUNTZA SISTEMAK
- %100eko FINANTZAKETA
- DIRULAGUNTZEN KUDEAKETA BARNE

renovables@eseki.com www.eseki.com 621 23 36 31

Enpresarekin instalazioak finantzatzeko baldintzak kontsultatzea.

G. Ez bazen kexu handiren bat egiteko, edo udal bilkuraren batera joateko, ez. Arrotz sentitzen genuen, urruti zegoela ikusten genuen. Orain, agian, beste perspektiba batetik ere ikusten duzu. Politikagintzan konfrontazioa egon behar da, eta egonen da, beti. Horregatik, garrantzitsua da udala herritik, kolektiboetatik eta herrigintzatik geroz eta gertuago egotea.

A. Unibertsitatean ikasleen ordezkaria izan nintzen Zentroko Batzordean. "Eskarmentu" hura nuen, baina udalean batere ez.

Behin barruan zein izan ziren sentipenak?

A. Ardura hartu eta astera Bilboko manifestazio batean idazkariari tiroa jo zioten. Zorionez ez zen ezer pasatu. Banekien non sartzen nintzen, baina hura, buff! Alkate gisa ardura batzuk dituzu, jendearen haserrearen eta agintariaren arteko bitarteko izan behar duzu. Kolpe nahiko handia izan zen: 'hemen zaude. Batzuetan gauzak gaizki ateratzen dira'. Bestela, batzuetan gehien nekatzen zuena mozioak ziren, udalean ezertarako balio ez dutela dakizunak. Badaude politika hutsa diren mozioak; halako eta bestearen inguruko jarrera hartzeak. Udalarari inolaz ere "eragiten" ez dioten gertaerak dira, nahiz eta beti zerbaitek eragin. Orain Ukrainako gerraren ingurukoak lirateke. Nahiz eta gauza baten alde edo kontra zaudela garbi izan, pentsatzen nuen: "honen inguruan Irurtzungo Udalak esaten duena ez du inolako eraginik izanen". Zentzu horretan lan politikoa handia zegoen. Nik horri zentzu handirik ez nion ikusten. Bestela, egunerokoan, lanak, bulegora arazoekin etortzen zen jendea... Lantzea zen, ez zen inolako arazorik izan.

G. Onak eta txarrak. Dena kontrolpean izatea oso-oso zaila da. Barruan zaudela, kristoren esualdiak momentu askotan. Besteetan gauzak aurrera doazela sentitzen duzu, eta ondo. Azkenean, makineria oso astuna da. Hori martxan jartzea eta gurutaldi abiadura ematea zaila da. **X.** 'Hau aurrera atera beharra dago'. Hori pentsatzen nuen.

Gaztetasunak zer ekarpen egiten dio udalari?

A. Ideia berriak, esperientziak baldintzatuak ez daudenak. Gaztetasunak ez du kontu zaharren ekarpenik egiten. Gaiak momentutik aurrera lantzen dira, ez da

atzera hainbeste begiratzen eta baldintzatzen. "Orain arte beti horrela egin da". Horrek batzuetan ez du inolako ekarpenik egiten. Gaztetasunak gauzak ikusteko modu berria ematen du. Horrela batzuetan ezin da lortu, baina beste askotan gauza asko lortzen dira ezberdin jokatu. Bestetik, gaztetasunak energia ekarpena egiten du.

X. 24 urterekin zure helburua lortzera joaten zara eta kitto. Pixka bat... eroen modura. Gaztetasunak hori egiten du. Baina, egia da, puntu bat egon behar duela. Hasten bazara: 'arazo hau izan behar dugu'. Horrela hasiz gero, ez da ezer egiten. Lau urteak berehala pasatzen dira. Lehendabiziko urtea, ikasten ari zarela, pixka bat luze egiten da. Baina hiru urteak berehalaxe pasatzen dira.

G. Lan egiteko beste modu bat. Oso garrantzitsua da udala hain arrotz ez sentitzea, udala beste tresna baten gisa ulertzea. Kaleak, kolektiboak, jendarteak zer dioten entzun behar du, eta horri eutsi. Ez da Marteko erakunde bat. Lan egiteko modu horretan sinisten dut. Hor zentratu behar litzateke, eta herriarekin batera joan.

Babesik sentitu zenuen?

G. Baaai. Jendeak ideiak ematen dizkizunean, zer egin, nola hobetu hura, bestea... Hori ere laguntza da. Altsasu beti herri aktibo bat izan da. Beti oso gihar indartsua izan du gizarte, kultur, kirol eta hainbat esparruetan. Batzuetan gehiago asmatuko genuen, besteetan gutxiago.

X. Herriko jendeak asko lagundu zuen, bai. Kontzejuak noizbehinka batzarra deitzen du. Baina batzarrak baino gehiago auzolan asko egiten dira, eta eskertzekoa da. Lizarragan egin diren proiektu asko herriko jendeari esker egin dira, batez ere auzolanetara joan direnei esker. Eta auzolana ez da jarritako egunean lanera joaten dena, esaterako, harriak jartzera. Auzolana da herriaren alde lan egiten duena: aholkuak ematen dituen, festak antolatzen dituztenak... Dena da auzolana, mila gauza daude; auzolan modu asko daude.

A. Bai, beti. Batzuk zure taldean eta besteek kontrako taldean sailkatzen zaituzte. "Zure taldekoek" kariñoa izanen dizute. Baina ez gara asko zorientzekoak. Hori ere ez duzu bilatzen. Baina gustatu ez zaizkien gauzak gogora-

raziko dizkizute. Beti egonen da zerbaite. Aparte, guztia ez da alkatearen ardura.

Gazte izateagatik helduagoek zurekin nagusikeriaz jokatu zuten?

A. Gobernuak aparte, ez. Maila pertsonalean faktura handiena zu sailkatzea izan zen. Hain gazte izanda sailkatzen zaituzte.



"GAZTETASUNAK IKUSPEGI BERRIAK DAKARTZA, EZ DU KONTU ZAHARREN EKARPENIK EGITEN" ALBERTO AZPIROZ



"BORROKATU BEHAR DUGU NAFARROAKO GOBERNUAK HERRI TXIKIEI DIRULAGUNTZA GEHIAGO EMATEKO" XABIER SENAR



"GARRANTZITSUA DA UDALA HERRITIK, KOLEKTIBOETATIK ETA HERRIGINTZATIK GERTU EGOTEA" GARAZI URRESTARAZU

Hasieran, halako zalaparta bat dago. Ondoren, edozein gazte baino gehiago epaitzen zaituzte. Parranda egun batean besteak atera daitezke, baina zu... Beti ikusgai zaude eta juzgatzen zaituzte. Denborarekin gehiegi sailkatzen zaituzte. Batzuk alde batera gehiago jotzen zuten, besteek bestera; beti sailkatzen joaten dira eta etsaitasunik ez da sortzen, baina parean posizionatzen zaituzte. Herri batean sailkatzen bazaituzte, gero zaila da etiketa kentzea.

X. Hasieran bakarren bat bai aditu genuela: 'gazte hauek zer ostia egin behar dute! Hauekin akabo!' Azkenerako, urteekin erakusten da zer egin den. Burua eta gogoa izanez gero, eta pentsatutakoaren inguruan batzarretan jendeari galdetuz gero, iritzia denak baloratuz gero, gauzak egin daitezke. Jendea ez zen kontra egon. Jendeak nahi du ikustea herriak etorkizuna duela, herria aldatzea, herrian gauza berriak ikustea. Bizia ematea. Gu hasi ginenean ez zegoen ez tabernarik, argindarrean kristoren gastua genuen... Baso aprobetxamendua saldu zelako bankuan dirua genuen, baina ez zegoen bizitasunik. Buelta eman beharra genuen. Hasiera batean gure helburua zen genituen gastuak kentzea. Mikrosarea egin genuen argindar gastua oso handia zelako. Tokiko Inbertsio Planeko, Nafarroako Gobernuaren dirulaguntzekin eta beste proiektuak egin genituen, Cederna-Garalur eta Europako dirulaguntzei esker taberna.

G. Lehen momentutik. Gazte eta emakume, gainera. Zure alor hain pertsonalean sartzean horri aurre egitea konplikatu izan zen. Egia da ez nintzela ni bakarrik. Ni alkatea nintzen, baina garrantzitsua dena taldea zen. Taldearengandik babesa izan nuen. Horrelako toki batean taldeak suposatzen du taldean lan egitea, atera eta gauzak ez hain pertsonalean hartzea: 'talde bat gara, eta taldeak erantzuten du'.

Ardura uztean zer sentipen izan zenuen?

X. Alde batetik, bakea. Zure gauza pertsonalak dituzu eta, aparte, herriko gauzak. Ikasten joaten zara. Kargua uztean pixka bat askatzen zara, pixka bat argitzen zara. Denok egon behar genuke kontzejuan, pixka bat ezagutzeko. Herri txiki, infernu handi esaten dute. Askotan kexatzen gara. Ni ere, bere garaian, kexa-

tzen nintzen. Baina sartzen zaren momentuan: 'aizu, behar bada bitan pentsatu behar ditut gauzak kexatzeko'.

G. Bizitza hasten zela berrirori ere. Azkenean, lau urtetan motxila bat betetzen joan zara eta gero motxila hori husten joatea ez da lan erraza, poliki-poliki bazoaz zure zama hori kentzen. Nire gauzetan zentratu nintzen, benera maite nituen eta egin nahi nituen kontu horietan zentratu nintzen.

A. Bigarrenez aurkeztu nintzen, alkate jarraitu nahi nuen proiektua genuelako eta egitekoak zeudelako. Baina hiru berdinaketa izan eta zerrenda bozkatuena eskuratu zuen alkatez. Zinegotzi izan nintzen. Alkatezta uztean nolabaiteko lasaitasuna sentitu nuen, ardura handia da, egunero, ez dago oporrik. "Orria pasa eta orain nire bizitzarekin dagokidana egingen dut". Hastea eta uztea ez zen traumatikoa izan. Etapa bat izan zen.

Jarraitzen duzu udalaren martxa?

G. Bai, saiatzen naiz jarraitzen. Ez hainbeste, ez ditudalako hain gertuko kudeaketan dabilzanak. Sarri izaten dut sentsazioa egunkarietan, aldizkarietan, Twitterren edo bestean agertzen denaz bakarrik jakiten dudala.

X. Laguntza asko ematen duzu. Kuadrilla batzuk gaude eta bakoitza gauza batean zentratzen da. Gu, batez ere, mikrosareekin laguntzen egon gara. Beste batzuk basoko lana. Orain, emakumezko batzuk zortziko dantza ez galtzeko entseguekin hasi dira. Bakoitzak hobekien egiten dakien hori egiten du, eta taldeak daude. Bakoitzari berea egiten utzi behar zaio. Guk ezin dugu herriarendako lanean egonen den pertsona bat izan, ez du ematen.

A. Gutxi gorabehera bai, parean udalak ere nahikoa mugatuta daude, ez dute aukera handirik. Egungo alkatearekin asko hitz egiten dut, nahikoa gaztea da. Hasi zenean babesa eman nion: "jakizu honek faktura pasatzen duela. Onena opa dizut".

Bueltatzeko tentaziorik izan duzu?

A. Ez (barrez). Etapa hura pasa zen, aldaketa egotea ona da. Inork galdetzen badit, iritzia emanen diot. Nahikoa aldunduta nago.

G. Inolakorik (barrez). Ez, oraingoz ez. Beste egin behar batzuetan nabil, beste konpromiso batzuk ditut.

X. Oraingoz, ez (barrez).



Elikagai bankua. ARTXIBOA

Elikagai Bankuak biltegia bete beharra du

Erakundearen aurtengo aurreneko jaki bilketa ostiral eta larunbatean izanen da

SAKANA

Nafarroako Elikagai Bankua gobernu kanpoko erakunde boluntarioak herrialdeko hainbat establezimenduetan izanen dira bi eguez. Bankuko boluntario gisa identifikatzen dituzten petoak aldean dituztela, dendetara joaten diren bezeroei elikagaiak emateko gonbidapena egingen dute batetik. Bestetik, ematen dizkieten elikagaiak sailkatu eta gordeko dituzte, ondoren guztia Nafarroako Elikagai Bankuaren biltegiara eramateko. Dendetatik pasako ez direnak, baina erakundeari ekarpena egin nahi diotenek, www.bancoalimentosnavarra.org webgunearen bidez egin dezakete diru ekarpena. Bestetik, bankuko ardura-dunek jakinarazi dute boluntario premia ere badutela. Ahalik eta boluntario gehien izanik, jende gehiagorengana iritsi eta bilketa behar bezala egin dezaketela gaztigatu dute. Hala aritu nahi duenak aipatu webgunean eman dezake izena.

Premia duten 26.000 pertsonari laguntza ematen die Nafarroako Elikagai Bankuak. Hilero jaki sorta bat jasotzen dute. 4.376 jaki tona banatu zituen 2021ean. Kudeaketa hori eginez 2.647 elikagai tona alferrik galtzea eragotzi zuen bankuak.

FESTAK

ITURMENDI SANMIGELAK

MAIATZAK 13 Larunbata

12:30 Meza, elizan.
12:30-14:00 haurrendako jokoak, plazan.
13:30-14:30 Auzatea, plazan.
18:00 Pilota partidak, frontoian.
20:00-22:00 Lau Haizetara musika taldearen emanaldia eta auzatea, plazan.
22:00 Zezensuzkoa.
00:30 Oihan Vega DJaren emanaldia.

UHARTE ARAKIL SAN MIGEL EGUNA

MAIATZAK 14 Igandea

09:00 Aralarko San Migel santutegira erromeria.
Eguerdian, herri bazkaria santutegiko jatetxean.

EGIARRETA SAN ISIDRO

MAIATZAK 15 astelehena

12:00 Arakilgo hildakoen omenezko elizkizuna, Itxasperri ermitan.
Ondoren, otamena.

LIZARRAGABENGOA SAN ISIDRO

MAIATZAK 15 astelehena

20:00 Auzatea, Bordatxo elkartearen.

ARBIZU SAN ISIDRO

MAIATZAK 15 astelehena

19:30 Aatea, urteko lehenengoa, plazan.



ALTSASU Alde Zaharreko festen barruan euskaldunen eLe festa ospatu zen larunbatean. Bertsolariek mintzodromoan hitz egiteko gaiak bota zituzten, eta amaitzeko Pantxika Lamurren ikuskizuna eta auzatea izan ziren.





ALTSASU Igandean hogeitabat artisauk Maiatzeko Gurutzeko Artisanu Azokan parte hartu zuten, Foru plazan. Ogibidea zuzenean lantzen eta haien lanak ikusteko aukera izan zen.



Zurea eskuratu nahi baduzu, jar zaitez harremanetan gurekin

☎ 948 564 275

✉ info@gkomunikazioa.eus

🌐 www.gkomunikazioa.eus  

🛒 Elustondo eta Martxeta (Irurtzunen)

🛒 Kaxeta (Etxarri Aranatzen)

🛒 Arkatz eta Liburunda (Altsasun)

gk
DISEINUA ETA
KOMUNIKAZIOA

Autopistako sarrera berriari alegazioak

Irurtzongo saihebidia egin ondoren, bigarren faseak A-15 autopistara sarbidea egitea aurreikusten du. Izurdiagako Kontzejuak hainbat alegazio aurkeztu dizkio Nafarroako Gobernuaren egitasmoari

IZURDIAGA

Irurtzongo saihebidia martxo akaberaz geroztik zabalik dago, eta horrek herri erditik trafikoa kentzea ekarri du. Irurtzundarren eta hainbat arakildarren aspal-diko eskaera da A-15 autobian Iruñerako sarbidea egitea. Gaur egun halakorik ez dago eta, Irurtzongo saihebidearen bigarren fasea balitz bezala, Nafarroako Gobernuak lotura hori egiteko lanak udaberrian eman nahi ditu. "Irurtzongo Udalak mugitu du guztia, baina ondorioak Izurdiagan pairatuko ditugu. Horregatik aurkeztu ditugu alegazioak", azaldu du Luis Beraza Ameztegi, kontzejuko presidentea.

Behin lanak despedituta, Izurdiagan trafikoa haziko dela aurreikusi dute. Horregatik, kontzejuak ibilgailuen abiadura murrizteko zeharrik goraatuak jartzea eskatu dio Herri Lanen eta Azpiegituren Zuzendaritza Nagusiari. Trafikoaren hazkundea zarata gehiago izatea ekarriko du Irurtzongo muga eta autopistarako sarbide berriaren artean. "Horri lehendik ere A-15 autopistak eragiten duen zarata gehitu behar zaio. Hori kontuan izanik, zarata murrizteko neurriak hartzea eskatu dugu", azaldu du Berazak.

Zerbitzuak berriro jartzea

Autobiarako sarbideko errepide berria Izurdiagako saihebidetik abiatzen den errepide baten bidez egingen du gobernuak. Proiektua aztertu ondoren, kontzejukoak jabetu dira Izurdiaga ondoko AP-15eko zubiaren ondotik abiatzen diren autopistako zerbitzu bidea eta dermioko bideak moztuta geldituko direla errepide berriagatik. "Bi partzelarako sarbiderako balioko dute bakarrik. Horregatik eskatu dugu bakarrik bide bat uztea eta bestea lehengoratzeta eta landareztatzea. Horretarako, obrarekin mugituko duten lurra erabil



Dermioko bidea, Izurdiagako saihebidia eta autopista. IZURDIAGAKO KONTZEJUA

BESTEAK BESTE SAN JOAN AUZORA IBILGAILU ASTUNEN SARBIDEA BERMATZEA ESKATU DU

dezakete", azaldu du Berazak. "Era berean, errepide azpiko bidearen sarbidea bertan behera utziko denez, errepideari eusten dion ezpondaren moduko zerbaitetan bihurtzea beharrezko jotzen dugu", esan du.

Gainera, kontzejuak eskatu du NA-7010 errepidea herriko San Joan auzoarekin lotzen duen bidea berriro jartzea. "Auzora sartzeko trenbide azpiko sarbidea ibilgailu arinendako da bakarrik. San Joan auzora ibilgailu astunak sartzeko trenbide azpiko sarrerak ez du balio. Konpontzea eskatzen dugun dermioko bidea da suhiltzaileen kamioiak, zama lanetako kamioiek edota hormigoi kamioiak erabili behar dutena. Horretarako dagoen bide bakarra da", azaldu du Berazak. Gaineratu duenez, "2018an San Joan auzoko etxe batek su hartu zuen eta suhiltzaileei sarbidea adie-

razteko, errepidera joan behar izan genuen, zein bide hartu adierazteko".

Ibilgailu astunak San Joan auzorako sarbide egokia izateko, bidean hainbat lan egitea eskatu du kontzejuak: bidea asfaltatzea, kurben trazadura behar bezala egokitzea eta bidearen malden gainaldea egokitzea. "Izurdiagako saihebidia egin zenean NA7010 errepidearen eta San Joan auzoaren arteko lotura egiteko dermioko bidea lotura nahikoa zela esan zen. Ez da hala sekula izan. Horregatik nabarmendu dugu bide horren konponketa premiazkoa dela", azpimarratu du. Berazak gaineratu duenez, "azken urteetan autopistaren zerbitzu bidea erabili dute ibilgailu astunek auzora joateko. Baina obra berriarekin bide hori moztuta geldituko denez, arazo horri konponbidea eman behar dago Nafarroako Gobernu". Bestetik, kontzejuak lanen ondoren paisaia lehengoratzeko ezpondetan landareak jartzea beharrezko jo du. Azkenik, kontzejuak jakinarazi du ez duela utziko sarbide berriko argiteriarako elektrizitatea bere argindar koadroetatik hartzen.



Muxi Mariñelarena Imazek familiaren asmoen berri eman du.

Mariñelarena ofizialki biktima gisa aitortzea eskatuko dute

Nafarroako Gobernuak onartutako legea baliatuko du horretarako familiak. 30 urte beteko dira hil zela

ETXARRI ARANATZ

Pello Mariñelarena Imaz hil zela 30 urte beteko dira maiatzaren 15ean, astelehenean. "Espetxetik Parisko ospitale zibil batera ateratu zuten, hiltzear zegoelako ere libre utzi zuten. Hurrengo egunean han hil zen, 29 urte zituela", azaldu du bere arreba Muxik. ETArekin kontrako sarekada batean atxilotu zuten Frantzian, eta behin-behinean preso, epaiketarik gabe, bi urte zeramatzala azaldu du Muxik.

Preso zegoela garatu zitzaion gaitza. Arrebak gogoratu duenez, "1992ko azarotik-edo osasun arazoak zituen, oinazeak, ordurako oso argal zegoen. Kiloak galtzen joan zen. Baina espetxean bere eskaerei ez zioten kasurik egiten". Mariñelarenaren kide presoek La Santeko espetxeko erizainak gaitzitzen zituzten, "oso gaizki zegoela esaten zieten". Erantzuna, "Mariñelarenaz kopetaraino zeudela. Hainbeste kezarekin nazkatuta zeudela erantzuten zieten. Medikuek arreta ezaren ondorioz, hiltzen utzi zuten", laburbildu du Muxik.

Hil baino hamabost egun lehenago Fresnesko espetxe ospitalean sartu zuten. Sendagile batek jakinarazi zien anaiaren birika batek ez zuela funtzionatzen, eta bestearen erdiak besterik ez. Ahizparekin egindako azken bisita gogoratu du: "ordu erdi irauten bazuen, hamabost edo hoge minutu behar izan zituen ziegatik bisita gelara joateko hiru pisuak igotzeko. Birikak erabat hondatuta zeuzkan eta

arnas arazo izugarriak zituen". Anaiak esan zenez, "espetxeko arduradunek bere osasun arazoan aurrean egiten zuten ez ikusia zela eta inpotente sentitzen zela esan zigun".

Eskaera

Nafarroako Gobernuak eskuin muturreko eta funtzionario publikoek eragindako motibazio politikoko indarkeriaren biktimak aitortu eta erreparatzeko helburu duen Foru Lege onartu du. Muxik jakinarazi duenez, "anaiaren kasua legeak zehaztutakoen barruan sartzen da. Eskaera bideratzeko lau urte ditugu, eta hala egingen dugu". Foru administrazioari egindako eskaerarekin, anaiaren heriotza "salatu eta gertatutakoa publiko egitea" nahi dute, "halakorik berritortu gerta ez dadin. Horrekin nahikoa da", azaldu du. Bitartean, eskaera aurkezteko agiriak biltzen hasiak dira. Egiari Zor fundazioaren laguntza dute langintza horretan. "Elkarrizketa bat ere egingen digute, eta horren arabera erabakiko dute onartzen duten edo ez. Ahaleginak egingen ditugu", nabarmendu du Muxik.

Nafarroako lege hori baliatuta, estatuaren biktimak ofizialki aitortuak izateko eskaera hainbat nafarrek egingen dituzte, tartean, gutxienez, beste bi familia sakan-darren eskaerak daude: Guardia Civilaren tiroz hildako Mikel Arregi Marin lakuntzarrarena eta bihotzean tiro bat zuela Itziarren hilik opatu zuten Josu Zabala Salegi etxarriarrarena.

FUTBOL PREFERENTEA

31. JARDUNALDIKO EMAITZAK

Altsasu - Lagun Artea	0-2
Etxarri Aranatz - Soto Ibarbaso	3-2

SAILKAPENA

PREFERENTEKO 1. MULTZOA

1 Amigo	69
12 Altsasu	40
17 Etxarri Aranatz	26
18 Lagun Artea	20

HURRENGO JARDUNALDIA

MAIATZAK 13, LARUNBATA

16:30 Altsasu - Univ. Navarra (Dantzaleku)

MAIATZAK 14, IGANDEA

16:30 Lagun Artea - Itarua Huarte B (Zelai B.)

18:00 Valle de Egües B - Etxarri (Sarriguren)

Altsasu hirugarrenaren kontra

Altsasuk sailkapenean hirugarren den Universidad de Navarra hartuko du. Azken bi partidak galdu eta gero, garaipenaren bidea berreskuratu nahi du talde gorriak.

Etxarri, azpiko postuetatik ateratzera

Partida erabakigarria du Etxarri Aranatzek, puntuatzen jarraitzen badu jaitsiera postuetatik ateratzeko aukera baitu

Lagun Arteak Itarua hartuko du

Azken bi partidak irabazi zituen Lagun Arteak, eta zulotik ateratzeko amesten jarraitu nahi du.

EMAKUME PREFERENTEA

KOPAKO 6. JARDUNALDIKO EMAITZAK

Altsasu - Berriozar	0-4
---------------------	-----

SAILKAPENA

EMAKUMEEN KOPA AUTONOMIKOA.

1 Amigo	15
9 Altsasu	3

HURRENGO JARDUNALDIA

MAIATZAK 14, IGANDEA

16:00 Altsasu - Mutilbera (Dantzaleku)

Altsasuk Mutilbera hartuko du

Altsasuk Kopako sailkapenean bigarren den Mutilbera hartuko du Dantzalekuan.

FUTBOL ERREGIONALA

26. JARDUNALDIKO EMAITZAK

Baztan B - Altsasu B	5-1
----------------------	-----

SAILKAPENA

ERREGIONAL MAILAKO 4. MULTZOA

1 Beti Onak B	67
12 Altsasu B	19

Altsasu B-k denboraldia bukatu du

Erregional mailako 2022/2023 liga despeditu da. Altsasu B-k hamabigarren postuan bukatu du liga. 5 partida irabazi dituzte, 4 berdindu eta 17 galdu. Datorren denboraldira arte, merezitako atsedena.

Palman asko dago erabakitzeke

ARETO FUTBOLA Dani Saldise irurtzundarrak jokatzeko duen Mallorca Palma Futsalek Lehen Mailako lidergoa lortzea du jokoan, eta Osasuna Magna Xotak salbazioko puntuak lortzea. Imanol Arregi larunbateko partida mimo handiz prestatzen ari da

Maider Betelu Ganboa IRURTZUN

Asteburuan Lehen Mailako Aretto Futboleko ligako 29. jardunaldia jokatu da, azken aurrekoa. Osasuna Magna Xotak Palmako bidea hartuko du, larunbatean, 18:30ean arerio oso gogorra baitu: Mallorca Palma Futsal (LaLigaSportsTV, IB3).

Bi taldeak txanponaren bi aldeetan daude. Mallorca Palma Futsal une oso gozoan dago. Bertako jokalaria da Dani Saldise Osasuna Magna Xotako jokalaria ohia. Aurreko denboraldian Inter Movistarren jokatu ondoren, 2022/2023rako Palma Futsalekin sinatu zuen irurtzundarrak. Eta bete betean asmatu zuen, denboraldi bikaina egin baitu Mallorcako taldeak. Igandean Europako Championsa irabazi zuen, eta Lehen Mailako liga despeditzeko gelditzen diren bi jardunaldietan lidergoa du jokoan Barça taldearekin. Egun, Barça da liderra (63 puntu), eta Palma Futsal bigarren (62 puntu).

Osasuna Magna Xota, ordea, txanponaren beste aldean dago. Sailkapenean hamabigarren postuan dago talde irurtzundarra (28 puntu), jaitsiera postuak 3 puntutara dituela. Beraz, salbazioa lortzeko eta Lehen mailari eusteko azken bi jardunaldietan puntuatu beharra du.



Saldise Championsa irabazi duen lehen jokalaria sakandarra da. PALMA FUTSAL

Dani Saldise, Europako championsa

Dani Saldise Martinikorena Palma Futsal taldeko jokalaria da. Oso pozik dago irurtzundarra, igandean Palma Futsalek historia egin eta Europako Championsa irabazi baitzuen lehenengoz, Portugalgo Sportingekin bana berdindu, eta penaltietan 3 eta 5 gailenduta.

Hitzordurako prest

Mallorcako partida mimo handiz prestatzen ari da Imanol Arregi entrenatzailea. Denboraldiko azken irteera da, eta nahiz eta Palma Futsalen kontrako partida "oso zaila" izango dela jakitun,

guztia eman nahi dute berdeek. Imanolek jokalaria guztiak izango ditu eskura, lesionatuta dagoen Roberto Martil kapitaina izan ezik. Carlos Vento zalantza da, Jaenen kontrako partida arazoezkin bukatu zuelako.



2022ko oinezko martxaren hasiera.

FUTBOLA / ATLETISMOA

Klinikaren alde, kirol asteburu beta

Josefina Arregi Klinikaren alde asteburuan antolatu diren kirol ekitaldiak izango dira protagonista Altsasun. Larunbatean Dantzalekuk Osasuna Beteranoen eta Dantzaleku Sakana Selektzioaren aldeko futbol partida solidarioa hartuko du 11:00etan. Sarrerak 8 eurotan jarriko dira salgai -16 urtetik azpikoek dohain-. Sarrerarekin Osasunako jokalariek sinatutako kamisetak, Bioracer loteak eta Xume tabernan bi otordu zozketatuko dira. Futbol partidak ilusio eta ikusmen handia piztu du.

Igandean Josefina Arregi Klinika II. Alzeheimer lasterketaren txanda izango da. Oinezko martxak (8 km eta 4 km) 10:30ean abiatuko dira klinikatik, Sakanako Trikitixa Eskolen doinuak lagun. 11:30ean hasiko da herri lasterketa (9,5 km). Egunean bertan izena emateko aukera dago. Laserketak eta martxak Foru plazan despedituko dira. Auzatea, Irantzu Gonzalez dantza eskolako emanaldia eta DJ Reimy iragarri dituzte.

207 gaztetxo, herri kirolean

HERRI KIROLAK Hiru urteren ondoren, bueltan da Sakanako Mankomunitateko Kirol Zerbitzuak antolatutako Sakanako Herri Kirol Topaketa. Aurten Irurtzango Atakondoan izan zen. LH 6. mailako Sakanako ikastetxeetako 207 neska-mutilen artean taldeak osatu ziren, eta herri kirol proba konbinatuetan parte hartu zuten guztiek, primerako giroan.



1.400 txirrindulari bilduko ditu La Pelusok

TXIRRINDULARITZA Guztia prest dago larunbatean, 8:30ean, La Peluso martxari hasiera emateko. 1984ko Reynolds taldeko txirrindulariak eta Mikel Nieve omenduko dira eta Juan Carlos Unzueta ANELA Fundazioaren aldeko diru laguntza jasoko du

Maidar Betelu Ganboa IRURTZUN Irurtzun Taldea Kirol Elkarteko Santi Moreno Moreno La Peluso martxa zikloturistari azken uki-tuak ematen dago. "Aurreikusitako guztia lotu dugu, eguraldia izan ezik. Larunbaterako eguraldi kaxkarra iragartzen dute, baina 15:00ak edo 16:00ak arte ateri eusten badio, eguna aurrera aterako dugu" azaldu du irurtzundarrak.

1.400 txirrindulari inguruk eman dute izena III. La Peluson, "bi herenak martxa luzean, eta heren batek motzean. Kontentutik gaude izena emate kopurua mantendu delako, are gehiago egun berean Donostia-Baiona martxa zikloturista antolatzen dela kontuan izanda". Proba luzea (138 km) gogorra eta gorabeheratsua da: zortzi portu dira -Goñi, Ulzurrun, Madotz-Zuarrarrate, Uitzu, Usategieta, Saldias, Berueta eta Madotz-Zuarrarrate, azkenekoz-. "Egia esan, ikusgarria da". Ibilbide motzak 89,7 km ditu



2023ko La Pelusoren aurkezpena. Ezkerretik bigarren, Santi Moreno. IÑAKI PORTO

eta lau portu: Goñi, Ulzurrun, Madotz-Zuarrarrate eta Zia.

La Peluso martxa abiatu baino lehen "oso giro polita egoten da Irurtzunen. Gainera, handik ordu eta erdira La Peluso atzera ere Irurtzundik pasako da, Goñi-

tik bueltan. Toki ona da martxa jarraitzeko".

Omenduak

Aurten 1984 urteko Reynolds-eko txirrindulariak omenduko ditu La Pelusok. "Angel Arroyo, En-



Ariztegui eta Borrega, Titan Desert bukatu dutela ospatzen. TEAM KOSNER-SALTOKI

Basamortuko titanak dira

Skoda Titan Desert Morocco (635 km, 7.000 m desnibel +) basamortuko BTT proba gogorra gainitu zuten Javier Borregak eta Miguel Angel Arizteguiak. Sailkatutako 355 bikerren artean Borrega 44. sailkatu zen (28:04:19), eta Ariztegui 232. (40:26:52).

rique Aja, Iñaki Gaston, Guillermo Arenas eta Julian Gorospe hurbilduko zaizkigu". Halaber, erretiroa hartu duen Mikel Nieve txirrindulariak ere aitortza jasoko du. Bestalde, La Pelusok ANELA Fundazioa lagunduko du (Alboko Esklerosi Amiotrofikoko Nafarroako Elkarte) eta Juan Carlos Unzueta Irurtzunera hurbilduko da kopuruaren txeketa jasotzera, "eguerdi aldera".

Horniduran aldaketa dago. "Oderitzen egongo da elikagai hornidura nagusia. Lehen Irur-

tzunen zegoen, baina gero Madotz igo beharra zegoen eta jan eta berehala gehiegi zen. Aurten Madotz igo ondoren, Oderitzen egongo da, kirolariendako hobe".

Erlojupekoa, bertan behera

La Pelusok maiatzaren 21erako antolatutako taldekako erlojupekoa bertan behera utzi du. "Iaz antolatu genuen lehendabizikoz eta harrera ona izan zuen. 19 talde aritu ziren. Aurten, ez dakigu arrazoia, soilik 5 talde animatu dira. Beraz, ez dugu egingo".

Asteburu txirrindulazalea biziko dugu Sakanan

TXIRRINDULARITZA Larunbatean juniorren lasterketa hartuko du Etxarri Aranatzek eta igandean afizionatuena Iturmendik

Maidar Betelu Ganboa SAKANA

Larunbatean Irurtzunek hartuko duen La Peluso martxa zikloturistaz gain, bi txirrindularitza lasterketa izango dira Sakanan.

Maiatzaren 13an, larunbata, Aralar Txirrindularitza taldeak juniorren mailako Etxarri Aranatz eta Ergoienako Muinoak lasterketa antolatuko du lehendabizikoz. 99 kilometroko proba da, 17:00etan Etxarri Aranatzko udaletxe paretik abiatuko dena. Arbizu, Lizarragabengoa, Iturmendi eta Ergoiena bitarteko erradioan jokatu da, tartean

Unanuko eta Lizarragako murreretan. Lasterketa bizia eta ikusgarria izatea espero du Aralarrek.

Igandean, aldiz, afizionatuen mailako txirrindulariak izango dira Iturmendiko Sarian bilduko direnak, 10:00etan (139 km). Urbasa Txirrindularitza Taldeak antolatutako lasterketan txirrindulariek bederatzi aldiz gainditu beharko dute Altamira. Proba, aldi berean, Nafarroako Txapelketa izango da eta Euskaldun Txapelketarako baliagarria. Iaz Iker Mintegik irabazi zuen, eta aurten ere hala nahiko luke.



Etxarri Aranatzko juniorren lasterketa berria Ergoienako muinoetan sartuko da. ARALAR

Iker Gomezzen laugarrena

Juniorren mailan, larunbatean XLVII. Lazkaomendiko Proba jokatu zen. Quesos Albenizek, izugarritzko lana eginez, sortutako ihesaldia zapuztu zuen eta Lazkaomendin Iker Gomezek

lana borobildu zuen, denboraldiko bere laugarren garaipena lortuz. Igandean Berako Errandonea Memorialean Sakana Group-Aleako Mikel Regil bigarren sailkatu zen, eta talde laikuntzarra izan zen onena.



Iker Gomez, Lazkaomendin. UTZITAKOIA

Kadeteetan Arronizko XXVI. Borja Oses Memorialean (57 km) 81 txirrindulari sailkatu ziren, Aurrera taldeko Joanes Olaizola buru zela (1:28:15). Sakana Group-Aleako Luca Martinez bederatzigarren sartu zen, 1:45era.

300 mendizaletik gora hiru mendizerrak batzera

MENDIA Altsasuko Mendigoizaleak taldea XIV. Hiru Mendi Zerrak mendi martxarako balizaje eta markatze lanen azken ukituetan eta mendi martxako azken lanetan murgilduta dago. Eguraldi kaxkarra iragarri dute, baina mendizaleak ez dira kikildu

Maidar Betelu Ganboa ALTSASU

Astebururako eguraldi nahiko kaxkarra iragartzen dute, baina mendizaleak ez dira izutu eta 300 pertsona baino gehiagok eman dute izena Altsasuko Mendigoizaleak taldeak larunbaterako antolatutako XIV. Hiru Mendi Zerrak mendi martxarako. Antolakuntzakoak guztia prest izateko azken lanetan murgilduta daude: hornidura guneko elikagai eta edariak prestatzen, herrietik gertu dauden ibilbidea seinalezatu eta markatzen, kontroleko datuak antolatzen eta mendizaleek jasoko dituzten opariak prestatzen.

Hiru Mendi Zerrak mendi mar-txa Urbasa-Andia, Altzania eta Aralar mendizerrak batzen dituen mendi ibilbide ederra da, mendizaleek asko estimatzen dutena. Ibilbidea Euskal Herriko Mendi Ibilbide Luzeen Zirkuiturako eta Nafarroako Iraupen Luzeko Mendi Ibilaldien Txapelketarako puntuagarria da.



Mendizalea taldea, joan zen urteko edizioan Ziordiko hornidura gunetik abiatzen.

Hiru aukera

Hiru Mendizerrak Ibilaldi Luzea (46 km, 2.700 m +), Ibilaldi Laburra (26 km, 1.200 m +) eta Ibilaldi Ertaina (36 km) daude aukeran. Mendizale guztiak batera abiatuko dira Burunda pilotalekutik,

7:00etan. Urdiainera joko dute, Portuazpitik Urbasa-Andiara igo eta Bargagainera heltzeko. Aurrrera eginez, Gainsolera iritsiko dira, eta handik Ziordiraino jaitsi. Ibilaldi Laburra aukeratzen dutenak Altsasura joango dira,



Zirkuitua Saria jaso zuten altsasuarrek

Martxoaren 12an Altsasuko Mendigoizaleak taldeak antolatutako Hiru Mendi Zerrak martxak 2022ko mendi martxen seinaliztapen eta balizaje onenaren Zirkuitua saria jaso zuen Euskal Mendizale Federazioaren eskutik.

eta gainontzekoak Sorozarretara. Ibilbide Ertainekoak Dorretxikitik barna Altsasura iritsiko dira, eta Ibilaldi Luzekoak Bala-lankaleku eta Intxusburu igo, eta San Pedrotik Altsasura helduko dira.



Blas eta Palacios, podiumean. PELI AVM

Sakana Motorsporteko bi pilotu izpegiko podiumean

AUTOMOBILISMOA Andoni Blas txapelduna izan zen eta Iker Palacios monoplazen mailan hirugarren

Erratzuk V. Izpegiko Igoera (5,2 km) hartu zuen larunbatean. 40 pilotuk parte hartu zuten. Sakana Motorsporteko Andoni Blas (Speed Car GT 1000) izan zen probako sailkapen absolutuko edo scratcheko txapelduna eta monoplazen kategoriako txapelduna (03:25.539). Scratchean laugarren Sakana Motorsporteko Iker Palacios lakuntzarra sailkatu zen (BRC B52), monoplazen mailan hirugarren (03:37.475). Bestalde, eskuderia bereko Arkaitz Irigoien bakaikuarra (Renault Clio) hamalagarren sailkatu zen (03:51.857), laugarren klasean hirugarren.

Lodosan, Goikoetxea txapeldun

Apirilaren 29an Lodosako II. Lur Gaineko Eremua Rallysprinta jokatu zen. Irabazleak Arakil Motorsporteko Javier Leyun pilotua eta Javier Goikoetxea kopilotu olaztiarra izan ziren (Mitsubishi Lancer Evo IX, 17:39.500). Sakana Motorsporteko Aitor Fernandez eta Iker Askargorta (Seat Ibiza) hamargarren sailkatu ziren (20:04:400) eta Iñigo Arbizu eta David Iribarren (Ford RACVN) 21. (20:32.400). Agurain eskuderiako Andoni Elizondorekin (Ford Focus RACVN) kopilotu ibili zen Ekai Perez. 24. sailkatu ziren (20:38.500).

Olatz Azazeta eta Daniel Lakuntza, Nafarroako txapeldunordeak

MENDI LASTERKETAK Extreme Higa de Monreal lasterketa Banakako Nafarroako Mendi Txapelketa izan zen

Maidar Betelu Ganboa SAKANA

Igandean, maiatzak 7, 14. Extreme Higa de Monreal mendi lasterketa jokatu zen, aldi berean Bakarkako Nafarroako Mendi Lasterketen Txapelketa izan zena. 125 korrikalarik hartu zuten irteera maratoi erdiko distantzia zuen proba osatzeko (21 km), eta horretaz gain 12 km eta 5 kilometroko probak ere jokatu ziren. Hiru probak kontuan hartuta, 311 korrikalari lehiatu ziren Elomendin. 5 kilometroko proba Nafarroako Kirol Jokoetarako baliagarria zen.

Maratoi erdian denbora ikusgarriak egin ziren. Iñigo Macia txapeldunak (1:47:29) eta Ion Sola bigarrenak (1:47:57) aurreko errekorra apurtu zuten, 1:48:12koa. Lehia oso estua izan zuten biek. Daniel Lakuntza etxarriarra 45. postuan sailkatu zen (2:26:13), eta beterranoen mailako txapeldunordea izan zen.

Olatz Azazeta, txapeldunordea

Emakumezkoetan Maddalen Jimenez nafarrak hasieratik erritmo bizia jarri zuen eta arazorik gabe irabazi zuen proba



Olatz Azazeta Pelaez altsasuarra Nafarroako txapeldunordea da. MIRIAM URIZ

(2:17:08). Bigarren Oihana Arratibel gipuzkoarra sailkatu zen (2:22:25) eta hirugarren Olatz Azazeta Pelaez altsasuarra (2:24:31). Beraz, Nafarroako txapeldunordea dugu gazte altsasuarra. 12 kilometroko proban

Alvaro Yaniz (54:59) eta Elisa Gonzalez (1:04:34) gailendu ziren, eta 5 kilometrokoan kadeteetan Javier Larrea (27:21) eta Lide Etxarri (31:30), eta haurretan Aratz Pardo (26:26) eta Alaitz Eraso (34:32).

AGENDA

EMAGUZUE ZUEN EKITALDIEN BERRI

ASTEAZKENEKO 13:00AK BAINO

LEHEN. Tel.: 948 56 42 75 / 661 523 245 / kultura@guaixe.eus

OSTIRALA 12

ALTSASU Gala.

Altsasuko 10. Gozamenek laburren lehiaketaren *Goza-gala* sari banaketa.
18:00etan, *Intxostiapunta gazte gunean*.

BAKAIKU Aurkezpena.

Nafarroako Trenaren Alde plataformaren Nafarroa, Araba eta Burgosen ibilbideen azterketa eta tren publiko eta sozial baterako proiektuaren aurkezpena.
18:30ean, *udaletxean*.

ALTSASU Ekitaldia.

Altsasuko EHBilduren hauteskunde programa aurkezteko solasaldia, Ainize Ibargutxi Iparragirre alkategaiarekin eta Idoia Goikoetxea Gomez eta Juan Jose Goikoetxea San Roman zinegotzigaiekin.
18:30ean, *lortia kultur gunearen areto txikian*.

LAKUNTZA Ekitaldia.

EHBilduren *Maite duzun Lakuntza* *egingo dugu* ekitaldia, Oihane Uribeetxebarria Garmendia alkategaiarekin eta Eneka Maiz Ulaiar Nafarroako parlamentuko hautetsiarekin.
19:00etan, *plazan*.

LARUNBATA 13

ALTSASU Mendi martxa.

XIV. Hiru Mendizerrak mendi martxa, Altsasuko Mendigoizaleak taldeak antolatuta. Hiru ibilbide: luzea 46 km eta 2.700 metroko desnibela, Nafarroako Iraupen Luzeko Ibilbideen Txapelketan eta Euskal Herriko Mendi Martxa Luzeen Zirkuiturako baliagarria; motza 26 km eta 1.200 metroko desnibela, eta erdiko ibilbidea.
07:00etan, *Foru plazatik*.

IRURTZUN Txirrindularitza proba.

La Peluso III. Martxa Zikloturista, Irurtzungo Taldea Kirol Elkarteak antolatuta. Bi ibilbidea: luzea, 138 km eta 2.700 metroko desnibela; laburra, 87 km eta 1.550 metroko desnibela.
08:30ean, *Foru plazatik*.

ALTSASU Ikastaroa.

Aniztasun funtzionala duten pertsonendako aisialdian laguntzeko formakuntza, Biak Bat elkarteak antolatuta.
10:00etatik 12:00etara, *Biak Bat elkartearen egoitzan*.

ALTSASU Batzarra.

Jai Batzordearen hausnarketa bilera.
10:00etan, *gaztetxean*.

ALTSASU Futbol partida solidarioa.

Osasuna Beteranoen eta Dantzaleku Sakanaren arteko Josefina Arregi klinikaren aldeko partidua solidarioa. Osasunako lehen taldeko jokalariek sinatutako kamisetan eta oparien zozketak izanen dira.
11:00etan, *Dantzalekun*.

ETXARRI ARANATZ Ekitaldia.

Pello Mariñelarena *Imaz 30 urte gogoan*. *Sormenak batzen ditu presoak eta herria* ekitaldia.
12:30ean, *plazan*.

OLAZTI Urteurrena.

Maisuenea gaztetxearen XVIII. urtemuga.
11:00 Mural margoketa.
13:00 Auzatea.

ETXARRI ARANATZ Ekitaldia.

Pello Mariñelarena *Imazen heriotzaren 30. urteurrena* omenaldi ekitaldia. Jardunek deituta.
14:00etan, *plazan*.

ETXARRI ARANATZ Txirrindularitza proba.

Etxarri Aranatz eta Ergoienako Muinoak Sari Nagusia, jubenilen mailako lasterketa. 99 km. Aralar Txirrindularitza taldeak antolatuta.
17:00etan, *udaletxetik*.

ZINEMA

ALTSASU

IORTIA KULTUR GUNEKO ARETO NAGUSIAN

Los buenos modales gaurkotasunezko filmaren emanaldia
Ostirala 12 19:00
Igandea 14 19:30

20.000 especies de abejas gaurkotasunezko filmaren emanaldia
Osteguna 18 19:00
Ostirala 19 19:00

ALTSASU Ikuskizuna.

Golazen 9.0 Pausokak ekoiztutako antzezlan musikatua (sarrerak agortuta).
17:00etan eta 19:30ean, *lortia kultur gunean*.

ALTSASU Gazte agenda.

Karta torneo.
18:00etan, *Intxostiapunta gazte gunean*.

LAKUNTZA Kontzertua.

Javi Martín, Iñaki Auzmendi eta Jorge Sanchez kantautoreen kontzertua.
19:00etan, *kultur etxean*.

ALTSASU Kontzertuak.

Errepresioari hartzak erakutsi Iñdar Gorriren elkartean jaialdia: Brigade Loco, Kaleko Urdangak, Against You, The Lio, Sofokoa, Irati 58, Ostikoka eta Neskatasuna taldeen kontzertuak.
Ate irekiera, 18:00etan; Burunda frontoian.

IGANDEA 14

ITURMENDI Txirrindularitza proba.


XI. Iturmendi Saria Afizionatuen Lasterketa, Urbasa Txirrindularitza Taldeak antolatuta. 139 km, Altamiratik bederatzai aldiz pasata.
10:00tan, *plazatik*.

ALTSASU Herri lasterketa solidarioa.

Josefina Arregi klinikaren aldeko Alzheimer II. Herri lasterketa. Hiru zirkuitu: 9, 5 km, korrikan; 8 km oinez eta 4 km adineko jendearendako eta haur txikiak dituzten familiendako.



ALTSASU Liburuaren astea: Saharako liburutegiak ezagutu nahi? Bubisher proiektuaren erakusketa. Maiatzaren 15era. Liburutegian.



ALTSASU Koldo Arnanz tailerra: 30 urtez artearen magiapean erakusketa. Asteleheneetik ostiralera 17:00etatik 20:00etara, larunbatean ikuskizuna hasi baino urte bat lehenago eta igandean 18:30etik 19:30era. Maiatzaren 21era arte. lortia kultur gunearen erakusketa aretoan.

Helmugan hamaiketako, DJ Reimyren emanaldia eta Irantzu Gonzalez dantza eskolako dantzarien emanaldia.
10:30ean, oinez; 11:30ean, korrika. Irteera: Josefina Arregi klinika. Helmuga: Foru plaza.

ASTELEHENA 15

ALTSASU Elkarretaratzea.

Pentsio duinen alde.
12:00etan, *udaletxearen aurrean*.

IRURTZUN Tailerra.

Irakurkide Txakurrekin irakurketa tailerra, Sakanako Mankomunitateak eta Biak Bat elkarteak antolatuta.
18:00etan, *liburutegian*.

OSTIRALA 19

ALTSASU Hitzaldia.

Faxismoaren aurrean antolakuntza komunista Sakanako GKSren Faxismoari aurre egin, zergatik eta nola hitzaldia.
19:00etan, *Gure Etxea eraikinean*.

ESKELA

Cristina Oribe Oria

Izarrik al dago
itsasoaren beste aldean?
Eguna hiltzen bada,
aurkitu gaitzala bazter ezkutu batean.

Zeruak arnasten du isilean.
Kresalak busti ditu zure begiak.

Itsasoari lo kanta bat,
olatuen oihuek baretzeko gaua.

Itsasoari lo kanta bat,
ilargiak zainduko gaitu, egizu lo lasai.

Zure koinatuak: Ángel Suárez eta Castillo García, Isabel Suárez eta Santiago Urteaga, José Suárez (zendua); zure ilobak: Castillo Suárez eta Andoni Irazustabarrena, Amalia Suárez eta Borja Garbizu, Pedro Urteaga eta Concepcio Mora, Fátima Urteaga eta Joaquim Sabater, Eva Urteaga, Juan Urteaga eta gainerako ahaideak

OROIGARRIA



Ange Madrigal Lopez

Luis Mari Arratibel Mendinueta

Beti gukin

Zuen kintuek

JAIOTZAK

- **Helena Matias Martis**, apirilaren 29an Altsasun
- **Lier Camello Garcia de Eulate**, maiatzaren 3an Altsasun
- **Micaela Caro Garcia**, maiatzaren 5ean Altsasun

HERIOTZAK

- **Florentino Jesus Echavarri Bengoetxea**, maiatzaren 6an Altsasun

INFORMAZIO HAU EPAITEGIETAN ETA UDALETAN JASOTZEN DA. AGERTU NAHI EZ DUENAK, HAN JAKINARAZI DEZALA.

OROIGARRIA



Oihan Garmendia Arruabarrena Ander Azpiazu Etxarri

25 urtes kinto, ta beti gukin!

1980ko kintuek

IRAGARKI SAILKATUAK

LANA/NEGOZIOAK

ALOKAGAI

Altsasun Coworking bulegoa autonomo eta urruneko langileentzat: Altsasun 4 edo 5 pertsonen artean partekatze bulegoa; Wifia, inprimagailua, berogailua, komuna eta officea ditugu. Aukera paregabe! Informazio gehiago 948 562 604 edo 603 417 554 telefonoetara deituz.

LAN ESKAINZA

Irurtzuno Pikuxar tabernan zerbitzari eta sukaldari lan poltsa: Asteburuetan eta udan lan egiteko gehien bat. Esperientzia baloratzen da eta euskara ezinbestekoa da. Curriculumak jasotzen ditugu tabernan utziz edo pikuxarberna@gmail.com helbide elektronikora bidailita.

Irurtzuno Udalak igerilekuko mantentze lanetarako lanpostua bete nahi du: Interesa dutenek maiatzaren 19ko 14:00ak arte dute epea eskabidea beteta, nortasun agiriaren fotokopia eta B2 hizkuntza eskakizuna egiaztatzen duen titulu ofiziala aurkezteko. Informazio gehiago eta baldintzak www.irurtzun.eus web orrian

LEHIAKETA

Txanxari ludotekarako logotipo lehiaketa: Lehen Hezkuntzako Altsasuko ikastetxeetako haurrei zuzenduta dago eta lehiaketa honen bidez Altsasuko Txanxari ludotekaren logotipoa aukeratu da. Lanak A4 formato bertikalean egin beharko dira, erabilitako materiala librea eta derrigorrez agertu

beharreko testua TXANXARI LUDOTEKA izango da. Lanak ludotekari aurkeztu behar dira maiatzaren 25a baino lehen eta lanarekin batera gutun-azal itxi batean izen-abizenak, adina, helbidea, telefonoa, eskolatu dagoen ikastetxea eta ikasmaita adierazten duen informazioa aurkeztu behar da. Saria marrazketarako materiala eta 60 euro metalikoan. Informazio gehiago ludoteka@altsasu.net - 948 467 471.

ZirTok umore erimatuaren lehiaketa: Bertsozale Elkarteak antolatuta, TikTok sare sozialean euskarazko umore erimatuaren sustatu asmoz sortutako bideo motz lehiaketa, baita zirtoa (erantzun erimatu barregarria) eta zirtolariak ezagutarazteko asmoz ere. 13 urtetik gorako edozeinek har dezake

parte, nahi adina bideo igota, betiere Zirtok kontua etiketatuta. Hiru sari egongo dira 500 euroko bat eta 250 euroko bi. Apirilaren 1etik maiatzaren 31ra bitarteko egongo da parte hartzeko aukera TikTok sare sozialean. Informazio gehiago eta eredu ezberdinen bideoak www.zirtok.eus web orrian edo TikToko ZirTok kontuan.

OHARRAK

Olaztiko Udan Euskarazko emateko aparteko deialdia zabalik: maiatzaren 26ra arte, olazti@olazti.com posta elektronikora idatziz edo udaletxera gerturatu.

Etxarri Aranatzeko egur lorteko eskatzeko epea zabalik: Epea kopuruak jakiteko izena eman behar da maiatzaren 18a baino lehen, www.etxarriaranatz.com.

eus web orrian dagoen eskaera orria bete behar da eta ordainketaren ordainagiria aurkeztu, epaitza bakoitzeko 44 euro ordaindu behar da. Epaitzen esleipena zozketa bidez egiten du udalak eta egurra saltzea debekatuta dagoela gogorarazi dute.

Arbizuko Udalak egur epaitzak eskatzeko epea zabalik: Izena maiatzaren 19a baino lehen eman behar da, 948 460 017 telefonora deituz edo udaletxera gerturatu.

Altsasuko musika eta dantza eskolan izena emateko epea zabalik: Izena emateko bi modu egongo dira www.altsasu.eus weborriaren bitartez edo eskolako idazkaritzan (astelehenetik ostegunera 15:30etik 20:00etara eta ostiralean 10:00etik 13:00etara). Informa-

zio gehiago https://altsasumusikadantzae.wixsite.com/euskaloturan_musikaeskola@altsasu.net helbidera idatziz edo 948 564 581 telefonora deituz.

Uharte Arakilgo Udalak kultura, kirol eta gizarte erakundeendako dirulaguntza deialdia egin du: Eskaerak aurkezteko epea maiatzaren 19an amaituko da. Informazio gehiago www.uhartearakil.com web orrian.

Euskara hutsezko Udalekuetara joango diren haur eta gazteendako dirulaguntzak: Udalekuak 5 egun eta 15 egun bitartean irau behar dute eta ekainaren 15etik irailaren 30era bitartean burutu behar dira. Informazio gehiago www.sakana-mank.eus web orrian eskura dezakezue.

iragarki@guaixe.eus
www.iragarkilaburak.eus



IZARRA

HEMEN, ZURE ONDOAN

Izarra, Nafarroako tanatorioa

Gure lurra, gure jendea, gure sustraiak

BEILATOKIAK

ALTSASU
Santa Cruz, 6

ETXARRI-ARANATZ
Nagusia, 2

948 05 90 90 · www.izarratanatorio.com

IRACHE

tanatorioak

Tanatorioak: Altsasu – Irurtzun – Lekunberri – Betelu – Leitza

“Betidanik”

☎ 948 19 70 70

📧 @Grupolrache

📌 Grupolrache

🌐 www.tanatoriosirache.es



BAZTERRETIK

ALTSASUKO
LIBURUTEGIA

Altsasuko Liburutegi Publikotik hiru irakurketa proposamen hauekin gatzoz

HELDUENDAKO:

Nire minaren etxean

Iñigo Antsorregi Dierez – Elkar, 2022

Ez da txantxetako gaia: liburu honen egilea, Iñigo Antsorregi Dierez, bere burua hiltzeko zorian egon zen, agur mezua ere prestatuta, depresioak horraino eramanda. Idazleak broma giroan kontatu nahi izan digu bere prozesua: zerk piztu zion gaitza, nola iritsi zen horra, nola sentitzen zen egun haietan, eta baita nola lortu zuen ateratzea. Ez da txantxetako arazoa gaixotasun mentalek daukaten zabalkundea eta gizartean sortzen duten estigma. Horregatik da bi aldiz eskertzekoa autorearen lana, bere minaren etxea jendaurrean erakustegatik.

GAZTEENDAKO:

Marrubizko uda

Karmelex Mitxelena; marrazkiak, Alex Orbe – Elkar, 2022

Maitek askotan pentsatzen du bere familia ez dela normala, etxean ez baitituzte, antza, gauza

normalak egiten. Oporretan esaterako, beren Berlingo urdinera igo, karabana zahar bati tiraka, herri galdu bateko kanpin batera joatea besterik ez zaie gurasoei bururatu. Hori gutxi balitz, aita eta ama, iritsi orduko, txakurra eta katua bezala hasi dira. Banatzekotan daude. Maite halabeharrez dago gogotxartuta. Ustekabean, ordea, lagunak egingo ditu, eta bere egoera ez zaio horren aldrebasa irudituko.

ALBUM IRUDIDUNA:

Eguna argitzeko zain

Fabiola Anchorena – Pamiela, 2022

Asteak zituzten eguzkiak, ilargiak eta euriak oihanean agertu gabe, eta gau ilunak irentsia zuen dena. Amazonasko animaliak kezkatzen daude, erabat aldatua ikusten dute beren bizilekua, eta bidaia bat hasi dute ikertu nahian zergatik ez duen argitzen egunak.

Eguna argitzeko zain ipuinaren testu poetikoak eta koloreen erabilera hunkigarriaz baliatzen da Fabiola Anchorena denei ohartarazteko nolako esplotazio eta suntsipena sufritzen ari den Amazonia azken hamarkada hauetan. Albumak basoetako suteez gogoeta egitera ere gonbidatzen gaitu: suteak, aldaketa klimatikoa dela-eta, gero eta gehiago dira azken urteotan, eta, zoritxarrez, albiste ditugu udaro.



Irakurkide saio bat. BIAK BAT

Txakurrekin euskarazko irakurketa sustatzen

Sakanako Mankomunitateko Euskara zerbitzuak eta Biak Bat elkarteak antolatuta Irakurkide txakurrekin lagundutako irakurketa tailerrak izanen dira. Animaliekin irakurtzeak onura asko dituela esan dute antolatzaileek

SAKANA

Irakurkide euskara sustatzeko txakurrekin lagundutako irakurketa tailerrak dira, eta Sakanako Mankomunitateko Euskara zerbitzuak eta Biak Bat elkarteak antolatuta, bi saio izanen dira: maiatzaren 15ean, astelehena, 18:00etan, Irurtzango liburutegian eta maiatzaren 30ean, 17:00etan, Olaztiko liburutegian. Parte hartzeko aurretik izena eman behar da liburutegietan.

Txakurrekin lagundutako irakurketa tailerren ekimena Biak Bat elkarteak sortu zuen, 2019an. Elkartetik azaldu dutenez, animalia uneoro presente dago saioaren garapenean eta parte aktiboa dute: ozen irakurketan laguntza moduan edo ulermen jardueretan galderak eginez, esaterako. Parte hartzaileek animaliekin harremana ahalbidetzen duten momentuak bultzatzen dituzte hezitzaileek ere, betiere horietako bakoitzaren espazioak eta erritmoak errespetatuz. Euskaraz irakurketa sustatzeaz gain, txakur

kurren elkarrekintzarekin batera, hezkuntza emozionala, animalien errespetua, edota baloreak bezalako gaiak lantzen dira tailerretan.

Txakur entzuleak

Animaliekin prozesu terapeutiko, hezkuntza eta aisialdian duten eragina positiboa da. Horretan urteak daramatza Biak Batek. Animaliekin lagundutako irakurketari dagokionez, saioetan txakurrak egoteak ematen dituen onurak motibazioarekin, irakurtzeko gozamenarekin, lan giroarekin eta irakurketa prozesuen garapenarekin oso lotuta daudela diote elkartetik. Hortaz, animalien presentziak irakurketa positibizatzen lanari mesede

egiten dio harekin higuintasun handiagoa duten pertsonekin.

Irakurkide programaren helburuak dira: txikitatik euskaraz irakurtzeko zaletasuna sustatzea animaliekin lagundutako jardueren bidez; irakurtzeko parte hartzaileen motibazioa eta gozamenaren areagotzea; aisialdirako eta gozamenarako espazio positiboen alde egitea, euskarazko irakurketa protagonista izanik; txakurrekin kontaktua bidez euskaraz irakurtzeko eta erabiltzeko emozio positiboak piztea; irakurketa eta beste izaki bizidun baten kontaktua bidez emozio eta balio hezkuntza jarduerak garatzea.

Tailerrak 6 eta 12 urte bitarteko haurren zuzenduta daude eta 45 edo 60 minutuko iraupena izan ohi dute. Txakur edo animalia ezaugarri hauek programan parte hartzeko hautatzen dira eta esperientzia eta prestakuntza dute. Esku hartzea Biak Bateko talde teknikoak egiten du.



PIKUXAR

Amaia Iturriotz txapelduna

Maiatzaren 6an, larunbatean, Pikuxar euskal txokoan antolatutako Aixita III. Bertso Sariaketa jokatu zen Irurtzango kultur etxean. Aitor Etxebarriazarraga, Amaia Iturriotz, Maddi Sarasua, Peru Abarrategi, Egoitz Gorosterrazu eta Sarai Robles bertsolariak aritu ziren. Buruz burukora Amaia Iturriotz eta Sarai Robles iritsi ziren, eta Iturriotzek irabazi zuen Aixitaren hirugarren txapela.

**MAIATZAREN 15EAN
IZANEN DA,
IRURTZUNEN, ETA
MAIATZAREN 30EAN,
OLAZTIN**

Erkuden Ruiz Barroso ALTSASU

Igone Augusto Fernandez dantzaria Dantzarima eta Sutan taldetako kidea da. Irantzu Gonzalez dantza eskolako irakaslea ere bada, eta aurreko urtean Orbe Katalunia Dantza Txapelketan bi sari irabazi zituen: errebelazio dantzariarena eta urrezko domina. Bakarrik parte hartzen zuen lehenengo txapelketa izan zen, eta esperientziarekin motibatuta, asteburu honetan jokatu den 2023ko edizioan parte hartuko du, Tarragonan.

Noiz hasi zinen dantzan?

Dantzan 16 urterekin hasi nintzen. Gimnasia erritmikotik nentorren eta 14 urterekin utzi nuen. Amari eta Irantzu Gonzalezi esker Dantzariman sartu nintzen.

Beraz, gimnasia erritmikoa hasi zinen. Zergatik?

Txikitatik gustatu izan zait dantza egitea eta abestea. Kantatzeko ez dut balio, baina dantzatze-ko ahalmen pixka bat badut. Garai horretan hemen zegoena Iskiza kluba zen. Urte asko egon nintzen, baina sorbaldako lesio batengatik utzi behar izan nuen. Bizitza gelditzen zitzaidala uste nuen. Amak Irantzu ezagutu zuen, animatu ninduten eta Dantzariman sartu nintzen. Gimnasia erritmikoa niretako dena zen, eta oinarri hori banuen; pixkanaka dantza eta mundu hori ezagutzen joan nintzen.

Noiz erabaki zenuen dantzan jarraitu nahi zenuela?

Hasi nintzenez aurrekoari lotuta jarraitzen nuen, eta horretara itzuli nahi nuen. Urte bat inguru egon nintzen Dantzariman eta utzi nuen. Berriz gelditu nintzen. Konpainian jarraitzen nuen, nire lehengusina ere bertan zegoen, eta ikuskizunetara joaten nintzen. Inbidia handia ematen zidaten. Eszenatokira itzuli behar nintzen, eta itzuli nintzenez guztiz sartu nintzen. Nirea zela jakin nuen.

Zu bakarrik noiz hasi zinen?

Aurreko urteko Tarragonako lehiaketan. Izugarria izan zen. Duela zenbait urte dantza irakaslea lanetan hasi nintzen eta asko gustatzen zait. Hasieratik Irantzuk txapelketa baterako talde bat koreografiatzeko aukera eman zidan. Aurreko urtean niretako zerbait egiteko behar bat bezala sortu zitzaidan; espazio hori behar nuen. Paula Urabayenek ere asko inspiratu ninduen. Lehiaketa batera solista bezala joan zen, eta ikusi nuenean islatuta ikusi nuen nire burua.

"Eszenatokira ateratzean niretako ari naiz; zoriontsu naiz"

IGONE AUGUSTO FERNANDEZ DANTZARIA

2022ko Orbe Kataluniako Dantza Txapelketan lehenengo aldiz parte hartu zuen aurreko urtean, eta aurten, bihar, Tarragonako lehiaketan berriz parte hartuko du



Igone Augusto Fernandez dantzaria 2022ko Orbe Dantza Txapelketan. UTZITAKOIA

Zer nahiago duzu koreografoa edo dantzaria izan?

Bi sentsazio guztiz desberdinak dira. Irakaslea izanda oso atsegingarria da etxean eta klaseetan egindako lana beste pertsona batzuetan ikustea. Zuretako dan-

"SENSAZIO DESBERDINAK DIRA; NIRE ARDURA HANDIENA BERAIEK DISFRUTATZEA DA"

tzatzen zaudenean beste sentsazio bat da. Ez zaizu hainbeste axola. Konfiantza oso handia dut ikasleengan, eta ez da hainbeste ikuskizun edo txapelketa batean nola egingo duten ikustea, baizik eta disfrutatzea. Nire helburu eta ardura handiena da beraiek disfrutatzea. Irantzuri eskerrak eman behar dizkiot nigan duen konfiantzagatik. Talde oso polita sortzen ari gara; nigan izan duen konfiantza handia oso garrantzitsua da. Lehiaketan parte hartzeko ere oso garrantzitsua izan da.

Nola sortzen dituzu koreografiak?

Niretako oinarrikoena inspiratzen nauen musika aukeratzea da. Denbora gehiago pasatzen dut abesti bat bilatzen koreografia egiten baino. Abesti bati mugimendua jarri behar diogu eta identifikatuta sentitzen bazara eta inspiratzen bazaitu, bidearen zati handi bat egingo dago. Taldearen araberakoa izan ohi da ere. Taldearen esentzia kontuan hartzen dut ere. Behin abestia aukeratuta papera eta boligrafoarekin eskemak egiten ditut eta bururatzen zaidana apuntatzen joaten naiz.

Dantza idatz daiteke?

Jakitun naiz apuntatzen dudana nik bakarrik ulertzen dudala, nire modura idazten dudalako. Gero klaseetara joaten naizenez ikasleek ere inspiratzen naute. Nahi gabe mugimenduak egiten dituzte eta ezinbestekoak dira inspira-

tzeko. Beste zenbait gauza aurreikus ditzaket, *porté* bat, esaterako, baina gero ez dira egingarriak; probatzen joaten gara eta gauza oso politak ateratzen dira.

Eta zureak nola sortzen dituzu?

Oso ongi ezagutzen dut nire burua dantzan. Ohean pentsatzen ditut. Behin musika aukeratuta, begiak itxi eta koreografia irudikatzen dut. Gertatu izan zait momentuan idatzi behar izatea, ahaztuko zaidala pentsatzen dudalako. Nire burua oso azkar doa eta gauza asko bururatzen zaizkit. Gero dantza egiten hasten naizenez pentsatutako mugimendu batetik beste bat atera daiteke eta egokitzen joaten naiz. Niretako lan egiten dudanean zailagoa da. Koreografiak hobe gogoratzen ditut irakatsi behar ditudanean, inprobisaziora jotzen dudalako. Niretako direnean batzuetan inprobisatzen dut, eta ez zait asko gustatzen. Horregatik dena idazten saiatzen naiz. Eszenatokian beste zerbait ateratzen bazait, egia esan, ez diot garrantzia handirik ematen. Badakit momentu horretan atara zaidana dela, eta ongi dago.

Zer sentitzen duzu eszenatokian?

Azaltzeko zaila da. Oinarrikoa da, baina oso zoriontsu sentitzen naiz. Zoriontasuna. Urduritasun momentuak ditut, eta kudeatzen badituzu, oso politak dira gerora ere gelditzen direlako. Behin eszenatokira ateratzen naizenez niretako ari naiz dantzatzen. Iortian edo horrelakoetan dantza egiten dudanean badakit senideak eta lagunak ikustera etorri direla, baita Tarragonara ere jendea etorriko dela, eta niretako eta besteendako ari naiz. Kontzientea naizegin duten esfortzuak eta disfrutatuta behar dute, eta disfrutatzen ikusi behar naute.

Tarragonako txapelketan errepikatuko duzu.

Dantzararen bizitza nahi baduzu luzea izan daiteke, baina betiere baldintzatuta zaude. Konturatu naiz sortzen diren aukera guztiak aprobetxatu behar ditudala, baita aukerak bilatu ere. Oso motibatuta etorri nintzen, eta aurten ere aukera sortu denez animatu naiz.

Nolakoa da koreografia?

Ikusten duenarendako antzekoa izan daiteke. Baina niretako desberdina da. Aurreko urtean kanporako zela sentitzen nuen. Aurten barruagorako da; liri-koagoa. Nik uste pila bat disfrutatuko dudala.



Manu Gomez Genua eta Arkaitz Errazkin Beltza etxarriarrak ondare materialaren webgunearen aurkezpenean. UTZITAKOA

"Komeni zen ondarea jendeari eskaintzea"

Manu Gomez Genuak eta Arkaitz Errazkin Beltzak Etxarri Aranazko basoetan aurki daitezken ondare materialaren bilketa egin dute eta webgune batean bildu dute. Maiatzaren 4an aurkezpena egin eta, dagoeneko, web orria bisita daiteke

E. C. M. eta E. R. B. ETXARRI ARANATZ

1 Etxarri Aranazko ondare materiala bildu duzue.

Bai. Gure basoan, baita herrian ere, aurkitu ditugun giza arrasto guztiak eta jendeak urtetan aurkitutako giza arrasto guztiak geolokalizatzen saiatu gara. Jendeari herri mailan zer daukagun erakusteko multzo polita bildu dugu.

2 Nondik heldu da ideia?

Orain dela hiru edo lau urte basoan zista bat aurkitu

zuen Arkaitzek, trikuharri txiki bat, eta pandemia garaian estalita zegoen oraindik indusketa lanak egiten ari zirelako. Bakarren batek puskatu zuen. Ezpileta elkarteko ki-deekin eta Gasteizko arkeologia talde batekin berreraikitze aukera egon zen. Gure artean esan genuen agian gauzak ez direla zaintzen ez direlako ezagutzen, eta komeni zela jende guztiak topatutako gauzak zer ziren eta non zeuden herriari eskaintzea.

3 Zenbat denbora aritu zarete?

Idea horrekin hasi ginen duela urte eta erdi. Orain uste dugu bilduma potolo xamarra dugula eta horregatik erabaki dugu publiko egitea eta egindako lana erakustea.

4 Zein izan da prozesua?

Konpontzera dozena erdi bat pertsona bildu ginen; lana egiten ari ginela hizketan hasi ginen. Miguel Markotegik dena txukun-txukun, detailera, gordeta eta erregistratuta dauka. Migue-

lek kartela jarri zuen eta guk biok pentsatu genuen jende asko ibili dela orain arte gauzak aurkitzen, eta agian gauza horiek guztiak publiko egin behar genituela. Miguelekin hitz egin genuen eta bere artxibo guztia utzi zigun. Guk gauzatzoren bat opatu dugu, baina bereziki jende desberdinak egindako lana bisualizatzeko ahalegin bat da.

5 Ondare hori markatuko da?

Guk geolokalizatu dugu eta Internet bidez kontsultatu ahal-ko da. Hor azaltzen da Etxarri Aranazko ondarea irizpide batzuen arabera sailkatuta. 56 gauza inguru jarri ditugu. Mapa bat ere jarri dugu, eta mugikorrarekin bertara iristeko modua dago. Udalarekin hitz egin dugu eta bere esku utzi dugu. Hemendik aurrera iniziatiba asko sor daitezke. Ikuskatzea eta babes bat ematea nahi dugu.

6 Beste bide bat zabaltzen da?

Auzolan baten jarraipena da. Mendian ibiltzen zirenek aurkitutako gauzak guk geolokalizatu ditugu eta beste batzuk erantsi ahal-ko ditugu. Uste dugu herritarrek hasiko direla esaten halako tokitan zerbait dagoela eta horrelakoak. Orduan, amaierarik gabeko bilketa bat da. Duela zenbait hilabete ibilbide txiki bat egin genuen. Zenbait tokitara iristea erraza da. Beste batzuetan basurdeak bezala biderik ez dagoen tokitatik sartu behar zara eta ez da hain erraza bertara iristea. Baina ibilbide txiki batean zenbait gauza ikusteko aukera dago.

7 Gauza asko egin daitezke.

Ikastetxeetan wikipedia proiektu txikiak egiten ibiltzen

dira, eta hor beste aukera bat dago. Orientazio probak egiten dituztenean banderinak bilatzen egon beharrean errota harriak bila daitezke...

8 Zer bildu duzue?

Denetarik dago: badaude iturriak, mugarriren bat berezia delako, hilarriren bat, harrobiak, galtzadak, zotolak, paretaren bat, zubiren bat, baselizak ere markatu ditugu... Guretzat garrantzitsuak diren gauzak beste batentzat, agian, ez dauka horrebeste garrantziarik.

9 Nola da zuekin basora joatea?

Manu: Arkaitzi esker eza-gutu nuen basoa beste modu batera ikusten. Burua asko aberastu dut. Biologoa naiz eta ikusten nituen basurde arrastoak edo zuhaitzak. Baina Arkaitzek tokiz kanpo dauden gauzak ikusten ditu. Orain nik ere horrelako gauzak ikusten ditut. Bidez kanpo ibiltzeko joera sartu zait, batez ere pandemia garaian Haritzen bidea bete zelako eta ezin zelako lasai ibili. Ni basora lasaitasun bila joaten naizen horietakoa naiz, eta orduan bidez kanpo ibiltzen hasi nintzen. Arkaitzen bidez horrelako gauzak ikusten ditut. Zerbait atezioa deitzen badizu, historiaren bila zoaz.

10 Bi gauzak uztartu daitezke?

Gozamena da.

11 Zein da webgunea?

QR bidez jendea zuzenean sar daiteke, bestela: sites.google.com/view/etxarriko-ondarea/etxarri-aranazko-ondare-materiala.

DISEINU ON BATEK BIZIBERRITZEN ZAITU

Eskatu aurrekontua konpromisorik gabe

gk
 619 821 436
 info@komunikazioa.eus
 www.komunikazioa.eus
 Foru plaza, 23-1. Aitzasu

